

ttipi-ttapa

GIDABAIMENA ATERATZEKO ESPEROAN

Nafarroan 5.000 lagun inguru omen daude gidabaimena ateratzeko froga praktikoa egiteko esperoan.

Egoera zein den ezagutzeko eskualdeko hiru gazteren testigantzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK / 10



KARLOS SENPER

Leitzan erronka solidariorako prest

Leitza herri inklusiboagoa lortzeko bidean, LHL erronka solidarioa abiatu dute herriko sei familiak. / 12


SINADURAK



EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI / 3



AITOR AROTZENA ALBIZU / 3



JOSEBA URROTZ TELLETXEA / 4



MIKEL SAGASTIBELZA LASARTE / 4



Alergiak eta txertoak hizpide Esozia Arroabarren alergologoarekin / 8

Suteen kontra mugaz gaindiko politikak eskatu dituzte alkateek / 30



Goizuetan guardiako medikuen arazoa aspaldikoa dela dio J. J. Etxeberriak / 35

Euskara sustatzeko egitasmoa abiatu du Kontseiluak Baztango ikastetxeetan / 41



ZOZKETA / 56

Liderrak gure eskualdean



eta baita azterketa egiterakoan CIEsek **Nafarroa Garaiko mendialdean** hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.

ttipi-ttapa
32.000 irakurle



Diario de Noticias 10.000 irakurle

Diario de Navarra 7.000 irakurle

Bertze batzuk 5.000 irakurle

Gara 1.000 irakurle


Berria 1.000 irakurle

SEXUAREN ARABERA


%60,3
EMAKUMEAK

%39,7
GIZONAK

ADINAREN ARABERA



IKASKETA MAILAREN ARABERA



DATU ITURRIA: CIES, 2020ko metatuak

SINADURA: Ttipi-Ttapa



NIRE TXANDA

EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI

Gazte gara gazte

Gazte gara gazte bai, eta ez gaude konforme. Hala zioen duela hamarkada batzuk Iriondoren abestiak, eta arrazoiak sobran dauzkagu oraindik ere berdina abesteko. Ez gaude konforme komunikabideetan gazteok gaudelako etengabe jopuntuan, edo osasunaren alde egin beharrean kontrol soziala areagotzea helburu duten neurri murriztaileak inposatu dizkigutela. Eta noski, ez gaude konforme pandemia honen erantzukizuna gure bizkarrean jartzen dutelako behin eta berriz.

Bizi dugun egoera honen aitzakiapean, izugarri handitu da jada gure herrietan handiegia zen presentzia poliziala, eta sekulako kontrol soziala zabaldu da gure inguruan. Ikusi ditugu gazteon aurka egindako espektakulu polizialen irudiak, eta bizitu ditugu gure aurkako jazarpen zuzenak. Aski da, nazkatuta gaude gazteok pandemiaren errudun bihurtzeko egiten diren ahaleginekin. Ez gaude konforme, ez, eta honi guztiari aurre egiteko prest gaude.

«NAZKATUTA GAUDE
GAZTEOK PANDEMIA-
REN ERRUDUN BIHUR-
TZEKO AHALEGINEKIN»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Zorionak zure urtebetetzean

Itxialdiko lehen astelehenean bete nituen urteak eta Covid ondoko (?) lehen urtebetetzea ospatu berri dut. Hasieran denak kontent aritu ginen *Ni etxean gelditzen naiz* kantari, balkoitik txaloka, bizikleta estatikoari olio eman eta egurrean, pasilloan harat-honatean maratoian... aspaldian aspertuxek gaude, ordea... Eta txertoekin ere, ojo oraindik!

NABARMENTZEKOAK



BEGOÑA
ARIZMENDI
BAZTANDARRA



LOREA
ZUBIETA
ARANZTARRA

Martxoaren 5etik 8ra bitarte, 5.703 emakumezko egin zuten Lilatoi birtuala, eta eskualdeko kirolariak fin ibili ziren. Lasterka, junior kategorian, Lorea Zubietta aranztarra izan zen bizkorrena –Ana Larretxea amarekin osatu zuten bortz kilometro ibilbidea–, eta ipar-martxa modalitatean Begoña Arizmendi baztandarra izan zen lehenbizikoa. Modalitate berean, Ainara Unanua alaba seniorretan lehenbiziko geditu zen.

ATZERA BEGIRA



2011-03-17 · TTIPI-TTAPA · 538 zk.

Droga kontsumoaren inguruan gogoeta

Droga kontsumoa gazteen artean hedatzen ari zela ikusita, duela urte batzuk Askagintza elkartera jo zuten Beran, eta hortik sortu zen Komunitatean Drogen Mendekotasunei aurre hartzeko Bera Herri Plana. Horri buruz aritu ziren duela hamar urteko TTIPI-TTAPAN Bakartxo Iragui Askagintzako kidea, Jon Abril Berako zinegotzia, Mari Carmen Alonso gurasoa eta Aitziber Esnaola gaztea. Iraguik «drogak dauden gizartean bizitzen ikasi behar dugula» aipatu zuen, baina «muga batzuekin». Abrilek «informazioa denok jaso dugu eta bakoitzaren esku dago kontsumitu ala ez» erran zuen. Alonsok «gurasook seme-alaben ondoan egon behar dugula» adierazi zuen eta Esnaolak «Berako droga kontsumoa handia» dela: «bazen zerbaiten beharra eta oraindik ere bada».

ttipi-ttapa

erran.us

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.us

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Izaskun Rekarte, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemalleak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Aranxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maidar Petireña, Oihana Kalparsoro, Fermin Ebekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 40€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Ipar Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

mecna

BAZTANGO EUSKARA ZERBITZUA

BORTZRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Malerrekako Mankomunitatea

CC BY SA



KOLABORAZIOAK

MIKEL SAGASTIBELTZA LASARTE

Pobreziaren gorakada

Ez da Pablo Hasel lehenengoa –ezta azkena izanen ere– azken instantzian hitzengatik kartzelatan dutena. Epaitu zuten Willy Toledo Jainkoari buruz hitz egiteagatik, baita Cesar Strawberry–Def con Dos taldeko abeslaria izateagatik ezaguna– umore beltzeko txio batzuegatik.

Atentzioa eman dit Willy Toledok epaiketaren harira egindako elkarrizketa batean nola esan zuen «... *Viva Franco* esateagatik norbait judizialki epaitzea aberrazio bat iruditzen zait...», adierazpen askatasuna aldarrikatuz higuigarri iruditzen zaionarekiko ere.

Kontua da ‘adierazpen askatasuna denentzat’ horrek auresuposatzen duela 1: gizaki guztiak berdintasun posizio batean gaudela eta 2: edozein gauza esan daitekeela. Ba ez bata ez bestea. Implikazio politikoak hainbat arlotara aplikagarriak dira.

1: Mundu honetan batzuek prozesu sozialen gaineko kontrola dute, erabakitze gaitasun erreala dute. Horiek (burgesiak), etekin bila han eta hemen, ez dute erreparorik pandemia garaian kalkulu partidistetan denbora galtzeko, osasun larrialdiarekin amaitzeko baliabideak handitu ordez kontrol sozial militarren hautua egiteko, egiazko informazio gardena eman ordez beldurraren estatua ezartzeko...

«SAKONU DEZAGUN IRITZIAREN FUNTSA DEN ARGUDIOAREN EGIAZKOTASUNEAN»

Kontrara, guri ardura indibidualaren panazea ematen digute eta benetako ardura-dunak seinalatzen ditugunean, epaitu egiten gaituzte.

2: Ezin da defenditu langile klaseari mugatua zaigun adierazpen askatasuna, edozein gauza esatea ez dela epaigarria esanez. «Bakoitzak esan dezala pentsatzen duena» kulturak, erabakiak gauzatzeko gaitasuna dutenek egiaz mozorrotutako gezurrak esatea ahalbidetzen du, inpunitate osoz. Bestalde, argudioaren sakontasunari begiratu ordez, iritzi guztiak jartzen dira maila berean. Horrek azaleko analisiak eta konfrontazioa soilik ekar ditzake: «zuk hori pentsatzen duzu eta nik hau, bakoitzak pentsa dezala nahi duena». Noski kasu batzuetan hala dela. Zuri musika talde bat gustatuko zaizu eta niri bestea. Baina «ni okupazioaren kontra nago eta zu alde» edo «ni kapitalista naiz, utzi bakoitzari nahi duena egiten» ez dira iritzi soilak.

Pobreziak beteriko gizartea mantentzen da horrela. Gizartea pobretzen da horrela.

Sakonu dezagun ba iritziaren funtza den argudioaren sakontasun eta egiazkotasunean. Bestela, Otegi bezala buka daiteke «ertzaintza demokratizatu» behar dela esanez.



JOSEBA URROTZ TELLETXEA

'The Great Reset'

Aspaldian, eta segur aski mendeetan ezagutu den gertaerarik bitxienaren urtemuga dugu, mundua geldiarazi duena inoiz ez bezala, orain arte bihotzekoek baino zortzi aldiz heriotza guttiago eragin omen dituen pandemiaren aitzakiarekin.

Ez dut aspaldian telebistatik ikusten, ez orokorrean komunikabide nagusietako albistegirik jarraitzen, hortaz, nire ikuspegiak ez du gehiengoarenarekin bat egingen.

Giltzaperatzearen lehen egunetan, ez nuen uste obedientzia maila hain handia izanen zenik. Harritu naiz zeinen ongi onartu dugun «distantzia soziala», ukondoa elkari emanez, lehen «izorra hadi» erran nahi zuen keinua agurra bihurtuz. Neohizkuntza zabaldu da: «*deseskalada*, konfinamendua, normaltasun berria, eri asintomatikoak...». Hasieran amets batean nengoela uste nuen, distopia egia bihurtu zela. Orain baieztatu dut zonbiak, ganaduak garela, nagusiaren aginduetara txakurrak ardiak ibiltzen dituen bezala. «Gure onagatik», segurtasunaren izenean, askatasuna eta maitasuna saltzeko prest gaude.

Nire bizian zerbaitez ohartu banaiz, gauzak ez direla itxuraz erakusten dizkiguten bezala da, zerbaitez nahi digutenean batez ere. Hortaz, nire ustetan, itxuraz osasun krisia denaren atzetik bertze zerbaitez dago. Hau bertze pausa bat da erabateko gizarte kontrolerantz, eta atzera begiratzu gero garbi ikus ditzakegu mugarriak, erraterako,

«AUNITZEK USTE DUTE DENA LEHENGORA ITZULIKO DELA BAINA EZ»

2001ean New Yorken gertatu zen ustezko eraso terrorista. Orduan norbanakoen eskubide aunitz murriztu ziren, gizarte kontrola areagotuz segurtasunaren izenean. Helburua zera izan daiteke: ingelesez *Great Reset* deitzen ari direna, Davosen elkartzen den Munduko Ekonomi Foroak gidatua, eta pandemia aitzakiazat hartu duena agendaren ezarpena azkartzeko. Txinan eta Israelen egiten ari omen diren bezala, erabateko kontrola digitala ezarri biztanleei, segurtasunaren izenean.

Horra mugarri tiki batzuk: 2015eko Bill Gatesen hitzaldia Ted saioetan, non hurrengo mundu mailako arazo larriak pandemiak izanen zirela aurreratu zuen.

Bitxikeria da baina 2019ko abuztuan hil zen Kary Mullis, PCR frogaren asmatzailea.

2019ko urrian (pandemia hasi baino hilabete lehenago) Estatu Batuetan egin zuten *Event 201* izeneko pandemia simulazioa, zeinean aztertu zuten Brasilen hasiko zen koronabirus pandemiaren baten aitzinean nola jokatu beharko luketen mundu mailako eragile nagusiek.

Microsoft, Rockefeller eta Gavi fundazioek eta abar lantzen ari diren ID2020 asmoa, gizaki guztiok identitate digitala izan dezagun, GreenPass Covid pasaportea xtertatzea bermatzeko, eliteek gidatzen duten Agenda 2030, ekologia, berdintasuna eta bertze hainbat konturen aitzakiarekin... Segur aski aunitzek uste dute hau parentesi bat izanen dela eta dena lehengora itzuliko dela, baina nik uste garbi dagoela ez dela hala izanen, kostako zaizue aunitzi muturrekoa kentzea. Eta beharbada okertuko naiz, eta hala bada, hainbat hobe!

11 GALDERA LABUR

HAIRA AIZPURUA IBARGARAI SARAKO BERTSOLARI GAZTEA

«M8an bertsolaritza ere presente egotea garrantzitsua da»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

15 urte dituen neska gazte saratarra naiz.

Zein dira zure zaletasunak?

Nire zaletasunak bertsolaritza, gitarra jotzea eta eskubaloian aritzea dira. Mendira joatea ere anitz maite dut.

Noiztik zabilta bertsotan?

Bertsolaritza ttiki-ttikitatik presente izan dut, aitak transmititu dit. Bertoak beti entzun izan ditut eta, errimatu gabe bada ere, gaztetatik hasi nintzen bertsotan.

Zer da bertsolaritzatik gehien gustatzen zaizuna?

Bertzeekin kantatu eta partekatzen dudan momentu hori. Joko baten gisa hartzen dudan unea, gozatzera eramaten nauena.

Bertsolaritzan erreferenterik baduzu?

Ez dut erreferenterik, baina bat erratekotan Maialen Lujanbio erranen nuke.

Norekin gustatuko litzaizuke taula gainean kantatzea?

Euskal Herriko Eskolarteko finala egin ez zenez, hainbat adinetako bertsolariak nahasiz, saio bereziak egin genituen. Hainbat bertsolarirekin, mota honetako saio gehiago gustura egingen nituzke berriz ere.

Bertsularien Lagunak elkarteko txapela jantzi duzu...

Bai, laster urte bat egingen du jada. Esperientzia bikaina izan da iparraldeko gazteekin harremantzeko eta maite genuena partekatzeko: bertsolaritza.



Berriz ere taula gainean ikusiko zaitugu?

Egoera honetan ez da erraza, baina baietz espero dut.

Nola ikusten duzu bertsolaritza Saran?

Saran, eta iparraldean oro har, bertsolaritza aparte den zerbait bezala atzematen dut. Hala ere, bertso-eskoletan gero eta haur gehiago dira. Gazteei ere aukera gehiago eskaintzen dizkigute taula gainean aritzeko.

Eta emakumea bertsolaritzan?

Gaur egun gero eta emakume gehiago ikusten dira oholtzan eta hori pozgarria da. Horren froga iparraldeko eskolarteko finala da: sei bertsolarietik mutiko bakarra zen.

M8an hiru neska bertsolari gaztek eta Aire ahizpek kantatu zenuen, zergatik?

Proposamena luzatu ziguten, eta guk onartu egin genuen. M8a bezalako egun batean bertsolaritza ere presente egotea garrantzitsua dela pentsatzen dugu.

Bilduma berria



70. urteurrena

urteurrena dela eta, erosketa bakoitzeko opariak banatuko ditugu

1951tik

Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak toailak

Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Emakumeari

BEGOÑA ZABALETA | LEITZA

Emakumeari

Emakumea, izaki bakar eta ez parekoa
Bizia eman eta kendutakoa
Giltzapean gordetakoa
Ahotsik gabekoa
Negar malkoak ixuritikoa
Pauso emanez oinez hasitakoa
Mutu bizi eta hizketan ikasitakoa
Itzal eta indar haundikoa
Bizi pozez zauden gazte eta neskatua
Zurea da horko larre berde loratutakoa.

Eskertza gutuna

LADIS SATRUSTEGI | LESAKAKO ALKATEA

Lerro hauen bitartez, otsailaren 20 eta 21eko sutea itzaltzen laguntzen aritu zinetenei eskerrik beroenak eman nahi dizkizuet. Lan bikaina egin zenuten!

Bere burua laguntzeko prest eskaini zuten lesakar, beratar eta ingurutako herritakoei ere mila esker. Eta nola ez baserrietako familiak eskertu nahi ditut, zuen laguntza suhiltzaileentzat hagit garrantzitsua izan baitzen.

Baina bereziki eskertu nahi ditut Lesakako suhiltzaile boluntarioak. Auzo-lanean eta modu isilean ezinbertzeko lana egin zenuten. Konfinamenduan lan ederra egin zenuten, eta bertze behin ere, zuen burua lehen lerroan jartzeko prest agertu zarete.

Mila esker egindako lanagatik!

'Route Barrée' & 'carretera cortada'

EVA LINAZASORO | SARA

Orson Welles zinema zuzendari amerikarrak 1955ean telebista britaniarrentzat ekoiztutako *Around the*

World telesaileko lehen bi atalak Euskal Herriari buruzkoak ziren.

Lehen atalean honela mintzo da Welles bera kameraren atzetik:

«Alde hartan antzinako Nafarroako Erresuma dago, alde honetan Pirinio apalak, itsasora jaisten diren lekuan dago Frantzia... Muga hau beti izan da teoria errealitatea baino gehiago... Frantziako eta Espainiako gobernuek ezarri duten teoria, beren aduana-agenteeek patruilatzeko... Hemen bizi direnak ez dira frantsesak, ez espainolak, ez... Euskaldunak dira... Eta beste errepublika edo erresuma batzuen eraikuntzak edo erorketak ez die burutik kendu euskaldunak direla... Eta, euskaldunak, diren modukoak direla».

Aipu hau Joseba Sarrionandiaren azken liburuan, *Gauzak direna balira*, azaltzen da idazlearen beraren gaiari buruzko iritziaz osatua: " Beste errealitate eta beste teoria batzuetan pentsatzen duten euskaldunei jakinaraztearren norena den boterea eta eskumena, kartel batzuk daude mugan: alde batetik frantsesez, *Route barrée*, eta bestaldetik espainolez, *Carretera cortada*».

Mugaldekua izanik eta pandemia bitarteko bizi dugun egoera irreal gutxi balitz, beste traba bat gehiago ezarri digute gure egunerokoan eta hor ibili behar dugu gure mendi-lepo ederretan inolako azalpenik gabe paratu dizki-guten hesi, barrera eta oztopo merkeei aurre egiten, eta okerrago dena, alde banatan, metrailetaz josita indarra nork duen erakutsi nahian biltzen den jendillaje ignorante horren mende gaudela burua makurtzen.

BOTA BERTSOA

GAIZKA
BAIGORRI
BELAZA

DONAMARIAKO
BERTSOLARIA



Entzun aizan/k

Doinua: Gaztalondo handian.

Aizan entzun nahi al dun herri-albistea zonaldean jotzen din iparreko-haizea ez dun erreza izaten hemen segitzea nahiz ez den falta etxeta jende gaztea mediku gosea txarra-errepidea zerbitzu pobrea ez dun zitudadea ni nau desagertzear den espeziea (bis).

Ez duk inporta zaren mutil edo neska herri(e)tako geroak sortzen ziguk kezka inon ibiliko haiz laguntzez galdezka le(he)ntasuna ez gaituk dena duk ezezka alferrikan eska naturaz barrezka pazientiaren testa haserrearen kresta koipeztatutako hitzez nagok gainezka (bis).

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Kalko ustelak

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*Behin kuota finkatuta dagoela, botoak baliogabetu egiten dira.

Denborazko adieran, *behin...* -(e)la menderagailu-moldea erdal interferentziaren ondorioa dela dio Euskaltzaindiak (espainolezko 'una vez que...' eta frantsesezko 'une fois que...'). Euskaltzaindiaren Hiztegian eta Orotariko Euskal Hiztegian ez da horrelakorik bat bera ere ageri.

Behin adizlagunarekin egitura egokiak hauek dira:

-*Behin kuota finkatuta dagoela, botoak baliogabetu egiten dira

> Behin kuota finkatuta dagoenean, botoak baliogabetu egiten dira

-*Behin taula sortu dugula, bi zenbakiaren multiploak ezabatuko ditugu > Behin taula sortuz gero, bi zenbakiaren multiploak ezabatuko ditugu.

-*Behin erakarri dituela, haietako inork ezin izanen du alde egin

> Behin erakarrita, haietako inork ezin izanen du alde egin.

-*Behin herriko historia kontatu dugula, has gaitezen herriko bertze kontuei buruzko informazio gehiago ematen > Behin herriko historia kontaturik, has gaitezen herriko bertze kontuei buruzko informazio gehiago ematen.

Hizki-zopa

Zuk zein erabiltzen dituzu? Bila itzazu!

- kalapita
- zalaparta
- iskanbila
- eztabaida
- sesio
- matraka
- ika-mika
- disputa
- kasaila



Nola erran?

DION ≠ DIOEN

Biak zuzenak izanagatik, ez dira balio bereko formak.

Dion (eta iraganeko *nion*, *hion*, *zion*, *genion*, *zenion*) formen oinarrian *dio* + -(e)n daude:

-Zer ekarri *dion* ikusi nahi du.

Dioen, berriz, (eta iraganeko *nioen*, *hioen*, *zioen*, *genioen*, *zenioen*), berriz, 'esan/erran' adiera-balioa duen *-io* aditz-erroaren forma trinkoa da:

-Ez daki zer *dioen*.

«Txertoen erreakzioek beldurra sortu dute baina seguruak dira»

ESOZIA ARROABARREN ALEMAN ELIZONDOKO ALERGOLOGOA

Nafarroako Ospitale Guneko Alergologia zerbitzuan lan egiten du Arroabarrenek eta alergiez eta haiei kontra egiteko neurriez, alergikoez eta Covid-19az, eta txertoen mintzatu da TTIPI-TTAPAREKIN

G. PIKABEA | ELIZONDO

«Kontraindikaziorik ez badago, Covid-19aren kontrako txertoa hartzea komeni da». Txertoek izan ditzaketan erreakzioen gaia puri-purian dagoenean, halaxe adierazi dio Esozia Arroabarren Alemanek (Elizondo, 1974) TTIPI-TTAPARI. Ikasketaz pediatra eta alergo- logoa da Arroabarren, 2004an, ikasketak akitu zituenean Donostian pediatra lanetan ibilia eta 2010az geroztik Nafarroako Ospitale Guneko Alergologia zerbitzuan ari dena. Bertzeak bertze, alergiak eta haiei kontra egiteko neurriak, alergikoak eta Covid-19a, eta txertoak izan ditu hizpide.

Udaberria allergien garaia da?

Alergia kasuak adinaren eta bizilekuaren arabera dira. Gure eskualdean, adibidez, alergia kasu gehienak akaroei lotutakoak dira. Akaroei hezetasuna gustatzen zaie, eta sintomak urte osoan suma ditzakete, bereziki, udaberrian eta udazkenean. Polenari alergia diotenak, berriz, udaberrian gaixotzen dira, polen aunitzeko garaia izaten delako. Baina orokorrean, alergiaren arabera da gaixotasuna agertzen den garaia.

Alergia kasuetan, zein izaten da tratamendu prebentiboa?

Alergia edozein dela ere, lehenbiziko pausoa kalte egiten duena alde batera uztea izaten da, edo neurri batean saihestea. Akaroei alergia dietenei, erraterako, etxean hezetasuna

murrizteko ahalik eta neurri gehien hartzeko erraten diegu: haurrei pelutxeak kentzeko, maindireak ur beroarekin garbitzeko... Baina gehienetan neurri horiek ez dira aski sendatzeko eta, bigarren pausoa sintomen arabera tratamendua jartzea izaten da. Mukia edo doministikuak izatean, ahoz hartzen diren antihistaminikoak lagungarriak izaten dira; bertze erremedio batzuk espraiak izaten dira eta asma- ren sintomak tratatzeko inhalagailuak erabiltzen dira. Erremedioa eta horren maiztasuna eta dosia larritasunaren arabera da. Alergia batzuetarako txertoak ere badira.

Bereziki haurrekin aritzen zara. Orduan agertzen dira alergiak?

Berez, edozein adinetako pazienteak izan ditzaket, baina praktikan gehienak haurrak dira. Alergien diagnostikoak orden berezi batean agertzen dira eta horri martxa atopikoa deitzen zaio. Sortu eta berehala, bulareko haurretan, dermatitis atopikoa da ohiko diagnostikoetako bat, batzuetan alergiari lotutakoa eta bertzeetan ez. Ondoko hilabeteetan, jatekoa egunerokoan sartzean, bertzeak bertze, esnari edo arrautzari alergia dieten kasuak agertu ohi dira. Bat, bi edo hiru urteko haurren artean, bronkiolitisa eta bronkitisa agertzen dira, eta hiruzpalau urterekin errinitis alergikoak.

Hortik aitzinera zein izaten dira ohiko alergiak?

Helduetan ere errinitis alergikoa, asma kasuak, eta erremedioei edo janariari lotutako alergiak izaten dira ohikoak, baita azaleko alergiak ere.

Aurtengo udaberria nolako izatea espero duzue?

Neguko prezipitazioaren arabera izaten da. Aurtun, gaixoek maskara erabilia, hobekuntza nabaritu dutela aipatu digute. Haurren artean, katarro eta infekzio kasuak ere aunitz jaitzi dira, eta udaberrian polinikoei eragina nabaritutako dutela espero dugu.

Pandemiak zein neurritan eragin du zure lanean?

Lan egiteko modua aldarazi digu. Gure lanean, arnas frogak



Esozia Arroabarren medikua da.

«ALERGIA KONTROLATUA IZATEAK AUNITZ LAGUNTZEN DU»

ohikoak izaten dira: espirometriak, oxido nitrikoaren neurketak.... Baina orain, arnas proba horiek egin aitzinetik PCRa eskatzen dugu. Covid-19a infekzio kutsakorra da, sintomarik ez dutenek ere kutsa dezaketena, eta inor kutsatuko ez dela bermatzeko PCRa eskatzen dugu. Hortik aparte, kontsultak aunitz gibelatzen ari dira. Ezin dugu lehenago itxaron-gelan sartzen zen paziente kopurua onartu orain. Gainera, alergiari lotutako kontsultak luzeak izaten dira eta denbora gehiegi da jendea itxaron-gelan edukitzeko. Lehenagoko solasaldiak orain telefonoz egiten ditugu, eta emaitzak frogak egitera etortzean ematen dizkiegu. Horrek guztiak denbora gehiago eskatzen du.

Covid-19arekin, alergia eta asma dutenak arrisku taldean daude?

Ez. Gaixo alergikoei ez dute koronabirusagatik makurrago pasatzen. Aurtun, gainera, kontsultetan eta larrialdi zerbitzuetan udazkenean eta neguan asma krisi edo bronkiolitisa kasu gutxiago izan direla sumatu dugu. Ez dakigu inhalagailuarekin segitzearen tratamendua mantentzearen garrantziaz ohartarazi dugulako edo maskararen ondorio izan ote den, baina errealitatea hori da. Bertzetik, Covid-19arekin alergia izatea baino aise makurragoa da lodi egotea edo gaixotasun kardio- baskularrak izatea. Alergia izatea ez da arrisku faktorea; aurtun ikusitako datuekin ondorioztatu dugu alergiak ez duela loturarik ez errazago kutsatzearekin ez pronostiko makurragoa edukitzearekin.

Kezka sumatzen da txertoek erreakzioak eragin ditzaketela eta...

Bai, beldur handia sortu da, baina gehienetan txertoak arras seguruak dira. Covid-19aren kontrako txertoekin esperientzia ttikia dugu, baina bertze txertoen ondorioz sortu diren alergia kasuak arras arraroak dira. Covid-19aren aurkako txertoen osagaiei alergia dieten

kasuetan baino ez da debekatzeko txertoa paratzea eta halako kasuak arras guti dira. Horregatik, txertatu aitzinetik gaixotasun alergikoari buruz galdetzen da eta diagnostikoaren arabera erabakitzen da eman edo ez eman, behaketa berezia behar den edo ez, edo bertzelako neurri bereziak hartu behar diren edo ez. Zerbait erremedio arruntek txertoek baino alergija kasu gehiago sortzen dute. Edozein moduz, norbaitek zalantzarik baldin badu medikuari galde diezaioke.

Covid-19aren kontrako txerto guztiak seguruak dira alergija edo asma dutenentzat?

Bai. Txerto guztiak kontraindikazioak dituzte, eta horregatik gaixo bakoitzaren mediku-historiala aztertu behar da, baina kontraindikaziorik ez badago, txertatzea komeni da.

Txertoa hartu dutenen artean erreakzioak izan dira...


Batek edo bertzek izan dute, baina oraindik goizegi da sintomak txertoaren ondorio izan diren edo ez baieztatzeko. Edozein erremedio, janarik edo produktu naturalek ere alergija sor dezakete. Probak egin eta baloratzeko denbora behar da. Erremedioei alergija dietenen kasuan, adibidez, bederen hilabete bat behar da sintomak alergiaren ondorio direla ondorioztatzeko.

Gero eta alergija kasu gehiago daude? Zergatik?

Iduri duenez, bai. Batetik, gaixotasun alergikoak gehitzen ari dira, baina bertetik, jendeak gero eta informazio gehiago du eta maizago eskatzen du alergologoarekin hitzordua. Teoria aunitz daude alergiak goititzearen gibelean. Genetikaren edo giroaren arabera, koa izan daiteke... Ez dago erantzun laburrik.

Kutsadurak badu eraginik?

Teorian bai. Kutsadurak alergiaren sintomak agertzearekin edo sintomak okertzearekin zerikusia izan dezake. Asma krisi baten larritasunarekin, adibidez, badu lotura pixka



Arroabarrenek Nafarroako Ospitale Guneko Alergologia zerbitzuan lan egiten du.

bat. Baina ez da horren ondorioa bakarrik, faktore aunitz hartu behar dira kontutan.

Zein aholku emanen zenieke asmatikoei eta alergija dutenei?

Alergia zeri dioten baldin badakite hori saihesteko neurriak hartzea gomendatuko nieke, baita erremedioak hartzea ere. Gaixotasun alergikoei kontra egiteko ematen diren erremedioak arras seguruak dira eta ongi egoteko tratamenduarekin segitzea garrantzitsua da konplikaziorik ez agertzeko.

Orain inoiz baino garrantzitsua goa da neurriak hartzea?

Bai, baina ez Covid-19ak alergiakoak gehiago kaltetzen dituelako; alergija kontrolatua izateak aunitz laguntzen duelako baizik. Eztula, mukia,

zintzurreko mina edo gisako sintomak hastean, medikuak Covid-19aren ondorio diren edo ez baieztatzeko duen modu bakarra PCRa edo test azkarra egitea da. Alde horretatik, alergija dutenek erremedioak hartuta sintomak kontrolpean izatea arras lagungarria izan daiteke. Erremedioak hartzen ez badituzte, sintomak maizago izanen dituzte eta maizago joan beharko dute medikuarengana, eta ondorioz, sintomak Covid-19aren ondorio ez direla ziurtatzeko probak egin beharko dituzte, baita isolatu ere.

Alergien eta Covid-19aren sintomak nahasgarriak dira?

Teorian Covid-19ak sukarra eta usaimenaren edo dasta-

menaren galera eragiten ditu, baina praktikan denetarik ikusten ari gara. Konparazio batera, umeen artean, sintomen zerrenda arras-arras luzea da: sukarra, mukiak, bronkitisa... Ez nintzateke atrebituko probarik gabe horietako bakoitza alergiaren eta ez Covid-19aren ondorio dela erratera. Hortaz, alergikoen sintomak kontrolpean badituzte, aunitzez errazagoa da dena eta horretarako erremedioak hartzea komeni da. Horrekin batera, arras garrantzitsua da zuzen jokatzea, eta Covid-19arekin kutsatua izatearen susmoa izanez gero, ezin da bizitza normala egiten segitu; isolatu eta etxean gelditu behar da.

Errepidera atera aitzinetik ilara luzeak

Gidabaimena atera berritan, ateratzeko praktiketan eta praktikak hasteko esperoan dauden eskualdeko hiru gaztek euren esperientzia kontatu diote TTIPI-TTAPAri

TTIPI-TTAPA

Nafarroako autoeskolen elkartek, Apanak, aditzera eman duenez herrialdean «5.000 lagun inguru» daude gidabaimena ateratzeko froga praktikoa egiteko zain. Covid-19aren ondorioz, osasun protokoloak betetzeak itxaron zerrendak sortzea eragin du.

Apanak adierazi duenez, pandemiaren eraginez gidabaimena ateratzeko izangai kopuruak goiti egin du, herriarrek garraio publikoa erabiltzea saihestu dutelako edo lanik gabe gelditzearen ondorioz jendeak denbora horretan ikastea eta gidabaimena ateratzea erabaki duelako. Horri azterketagileen gabezia gehitu zaio: «azken urtean 10 azterketagile izatetik sei izatera pasatu gara, pandemiagatik

«UDARAKO GIDABAIMENA BEHAR DUT»

LEIRE REKALDE, ELIZONDO

«AZTERKETARAKO EZ NUEN ESPEROAN EGON BEHAR IZAN»

ELENA URRUTIA, ELBETE

«ITXARONALDIAK AURREIKUSPENAK ZAPUZTU DIZKIT»

JANIRE IRIBARREN, DONEZTEBE

arrisku taldekoak direnak ez daudelako eta zenbait lekualdatze izan direlako». Horrek guztiak teorikoa orain gainditzeko dutenek azterketa praktikoa egiteko esperoan behar denbora «lau hilabeterainokoa» izatea eragin du eta, ondorioz, kasu aunitzetan, autoeskolek praktiken hasiera datak gibelatzea erabaki dute.

Egoera momentu honetan «egonkortuta» dagoen arren, aurreikuspenak kezagarriak dira: «udan berriz ere izangai kopuruak goiti egingen du eta egoerak okerrera egingen du. Gainera, bi aztertzailerak erretiroa hartuko dute».

Horren aitzinean, Apanak maiatzean egingen den lehiketetan bertze bizpahiru azterketagile bidaltzeko eskaera egin du Nafarroako Autoeskolen Konfederazioaren bidez: «Nafarroa biztanleko azterketagile gutxien dagoen laugarren erkidegoa da eta erretiroa hartzen dutenean bigarren izatera pasatuko gara. Eskatutako aztertzailerak bidaltzea ezinbertzekoa dugu».

Egoerak zuzen-zuzenean eragin dituen milaka lagunentz artean daude Leire Rekalde Lazaro (Elizondo, 2002), Elena Urrutia Goienetxe (Elbete, 2002) eta Janire Iribarren Lizardi (Doneztebe, 2002). Eta Iribarrenen lekukotasunak, Nafarroan ez ezik, bertze erkidego batzuetan ere arazoak izan direla ondorioztatzeko bide eman digu.



Azterketa praktikorako prestatzen ari da Leire Rekalde.

«Ez zait bidezkoa iruditzen dauden zerrendekin teorikoak iraingitze data bera izatea»

«Banekien praktikoarekin hasteko esperatu beharko nuela baina ez nuen hainbertze izanen zenik uste». Halaxe aitortu du Leire Rekalde Lazarak (Elizondo, 2002). Teorikoa «bizpahiru astetan» atera bazuen ere, praktiketan hasteko «ia urte erdia» egon da esperoan: «uztail bukaeran gainditu nuen eta praktiketan urtarrilaren 15ean hasi nintzen». Hasi orduko «teorikorako ikasitako gauza batzuk atzendu

ere egin zaizkiola onartu du. Zorionez, bere kasuan «momentu honetan ez dut autorik behar, lagunentz batekin, gurasoekin edo autobusean moldatzen naiz» eta alde horretatik ondorioa ez

«EGOERA ARRUNTEAN BAINO PRAKTIKA GEHIAGO BEHARKO DITUT»

da larria izan. Hala ere, «gidabaimena burutik kentzeko» beharra sentitzen du: «klaseetan hasi bezain agudo gainditu nahi nuen, egunerokoan horretan ez pentsatzeko eta oraindik horrekin nabil». Bere kasuan «astean hiru egunez» izaten ditu saioak: «beraiek erraten didaten ordutegian izaten da eta gehienetan 19:00 aldera». Ordutegia ez da arras ona berarendako: «ordurako ilunduta egoten da eta zailagoa iruditzen zait». Kalteak zuzenean jasaten ari dela jakin arren, dagoena hartu bertzerik ez du: «irakasleek ordutegia arras bete dute eta nik azkeneko orduan dut saioa. 12 praktika egin ditut eta ordutegi horretan izatearen ondorioz egoera arruntean egingen nituzkeen praktika kopurua baino aunitzez gehiago beharko ditudala iruditzen zait». Momentuz ez du bere burua azterketara joateko gai ikusten eta oraindik lasai dagoen arren, «ahal bezain fite» atera nahiko luke. Egoeraren kalteak zuzenean eragin du Rekalderengan eta esperoan egon diren bertze hainbat eta hainbatengan eta horren aitzinean teorikoa bi urtetara iraingitzea «ez da bidezkoa» bere ustez: «nahaste hau izatea ez da gure errua eta borts hilabete baino gehiago esperoan egotea ez da nire aukera izan...». Orain artean elizondoarra «arras ongi» moldatu da batetik bertze ibiltzeko baina udarako beharko duela nabarmendu du: «lanera joateko edo egun-pasak egiteko erraztasun hori izanez gero, ez ditut gurasoak orain artean bezainbertze molestatuko».



Otsail erditsuan lortu zuen gidabaimena Elena Urrutiak.

«Praktiketarako bi hilabetez esperoan egon arren, gero klaseak segidan izan ditut»

Abuztuan hasi zen gidabaimena ateratzeko saioekin Elena Urrutia Goienetxe (Elbete, 2002) eta otsailaren bigarren asterako baimena eskuartean zuen. Teorikoa «nahiko fite» atera zuen: «abuztu bukaeran klaseekin hasi nintzen eta irail erdialdera egin nuen azterketa». Praktiketean hasteko, ordea, «bi hilabetez» esperoan egon behar izan zuen. Hala ere, hasteko aukera izan zuenean, martxa ona izan zuen,

«INGURUKOEK NIK BAINO AUNITZEZ GEHIAGO ESPERATU DUTE»

teko aukera eman zidaten. Azterketarako ere ez nuen esperoan egon behar izan, irakasleak data proposatu zidan nik eskatu aitzinetik eta horixe onartu nuen». Klaseak «banaka» eta prebentzio neurri zorrotzak betez egin ditu elbetearrak: «praktikak banaka egiten genituen, maskara jantzita eta hurrengo ikasleari pasa aitzinetik bolantea, martxak... garbitu behar izaten genituen». Banaka egin behar horrek «itxaron zerrendak sortzea» eragin du. Bere kasuan bi hilabeteko kontua izan den arren, hurbilean gehiago esperatu behar izan dutenak izan ditu: «kuadrillako batzuk Iruñean ari dira eta ni baino gehiago itxaron behar izan dute, hiruzpalau hilabete. Gasteizen bizi direnek, berriz, zerrenda ikusita, beranduago hastea erabaki zuten». Urrutiarendako gidabaimena ez da ezinbertzeko kontua «lagunak gehienetan Elizondon biltzen gara eta Elbeten bizita ez dut horren beharrik, ez behintzat Gartzainen, Zigan, Lekarozen edo Narbarten bizi direnek adina». Dena den, edukitzeak «planak egiteko» aukera ematen dionez, «ezinhobea» da berarendako. Gehiago ere bada: «orain Tuteran ikasten ari naiz eta joan-etorri ibiltzeko autoa izatea erosoagoa iruditzen zait. Hala ere, gurasoek momentuz ez didate uzten eta kontaktuak bilatu eta ahal den moduan joatea lortzen dut». Gidabaimena zutenekin ibiltzetik gidabaimena izatera pasatzea pozgarria izan da berarentzat eta «oraindik zer ikasia badudan arren ahal den heinean gidaria ni izaten saiatzen naiz».

klaseak nahiko segidan izan baitzuten: «ikaske-tengatik Tuterara joan nintzen eta han egin nuen atal praktikoa. Bi hilabetez esperatu nuen eta hasi nintzenean astean lauzpabortz egunez egi-



Praktiketean hasteko zain dago Janire Iribarren.

«Praktiketan otsailean hastekoa nintzen eta martxoan oraindik ez dut berririk»

Ikasketak direla eta, Bilbora jo zuen Janire Iribarren Lizardik (Doneztebe, 2002). Hortaz, gidabaimenaren atal praktikoa bertan ateratzea erabaki zuen: «teorikoa bizpahiru astez prestatu eta azaro bukaeran gauditu nuen. Ondotik, horri segida emateko, egokiena praktikoa Bilbon ateratzea iruditu zitzaidan». Urtarrilean, autoeskola batean izena ematera joan zenean, «hilabete eta erdiz» esperoan egon

«GIDABAIMENA ATERA ARTE BILBON GELDITU BEHARKO NAIZ»

beharko zuela erran zioten eta praktiketan hasteko momentua beharko lukeena ailegatu zenean «gutxienez bertze bi hilabete beharko dituztela aipatu zidaten...». Iribarreni aurreikuspenak aldarazi dizkio itxaronaldiak. Izan ere, maiatez-erako gidabaimena edukitzea espero zuen eta horrek batera «lanean hasteko» asmoa zuen. Gehiago ere bada: «ikasturtea apirilean akitzen dudanez maiatzetik aitzinera ez nuen Bilbon gelditzeko asmorik». Izena eman zuen momentuan hori jakin gabe egin zuen eta orain ondorioak argiak dira, ez baitaki ordurako atera eta herrira bueltatzetik izanen duen: «planak zapuztu dizkit eta apirilean ikasketak akituta ere, gidabaimena atera ez badut Bilbon gelditu beharko naiz...». Gaur gaurkoz, praktikekin ez da hasi eta noiz hasiko den ere ez daki: «momentuz autoeskolakoek astean zehar ditudan momentu libreak zein diren baino ez didate galdetu». Ikusiak ikusi, konponbideak eta egoerara egokitutako neurriak beharko lirakeke doneztebar gaztearen ustez: «jasan beharreko itxaronaldiak ikusita, teorikoaren iraungitze data luzatzea, erraterako, ez legoke gaizki». Edozein modutan gidabaimena «mugikortasunerako baliabide garrantzitsua» eta «bizi garen eremuan beharrezkoa» denez, esperoan egotea bertzerik ez du: «guk ez dugu herri batetik bertze mugitzeko autobusik eta hirietara jotzeko ere ordutegiak hagitz mugatuak dira. Orain arte gurasoekin moldatu naiz lanera edo medikuarengana joateko, haiek ezin bazuten, berriz, izeba-osabek edo lagunak batek eramateko zortea izan dut». Hala ere, badu «eginbeharretara» bere kasa mugitzen hasteko gogoia, «bertze baten menpe egoteko beharrik gabe».



LHL erronka garatzeko argazkian ageri diren Leitzako sei familiek lantaldea sortu dute.

Egiteko asko dagoelako erronka solidarioa abian

Leitza herri inklusiboagoa lortzeko bidean, LHL erronka solidarioa abiatu dute herriko sei familiak. Herritarrak sentsibilizatzearekin batera, behar bereziak dituztenei bizitza errazteko ekarpenak egitea dute helburu eta ekainean Linza-Hiru Errege Mahaia-Leitza kirol erronkarekin borobildu nahi dute

G. PIKABEA | LEITZA

Ikusezina ikusgai bihurtu nahi dute, zailtasunak dituztenengan arreta jarri eta haiei «bizitza errazteko ekarpenak egin eta herritarrak sentsibilizatu». Azken batean, «Leitza herri inklusiboagoa» izatea dute begiz joa, sinetsita daudelako «mundu justuagoa eraikitzeko bidean inklusibitatea gako garrantzitsua» dela.

Helburu horri tiraka LHL erronka sortu dute Leitza. Kirol erronka batekin hasi zen dena, baina aurretik Leitza egindako «bi proiekturen garrek utzitako errautsetatik jaiotakoa» dela diote; batetik, Leitza egiten den Euskal Herria Mendi Erronka, «kirola, euskara eta auzolana bultzatzeko egindako lan eredu garritik», eta bestetik, Leitza Urratsez Urrats proiektua, «instititutukoek eta

eskolakoek Leitzako irisgarritasun eta mugikortasun gabeziak azalertzeko eta herritarrengan kontzientzia sortzeko egin zuten lanketa bikainetik».

Gauza bat eta beste, azkenean, erronka solidarioa abiatu dute eta Iker Gomez eta Iraitz Uriarte leitzarren mendi lasterkete-

tarako zaletasunak eman die horretarako bide. «Aurten, koronabirusaren ondorioz, ez Leitzako Mendi Erronka ez bestelako mendi lasterketa askorik izanen ez dela ikusita, erronka pertsonala egitea bururatu zitzaigun». Hasieran, «Leitzatik abiatu eta Euskal

Herriko tontorrik altuenera ailegatzea» pentsatu zuten. Gero, ordea, «motibagarriagoa eta hunkigarriagoa» irudituzitzaen alderantziz egitea, «eta herriko plazan bukatzea». Hala erabaki zuten Linza-Hiru Erregeen Mahaia-Leitza ibilbidea egitea. Hortik datorkio egitasmoari LHL erronka izena. 150 bat kilometroko ibilbidea da, 6.000 metroko desnibel positiboa duena, 24 ordu baino gehiago korrika. Onartu dute: «ez da erronka makala, ez!».

Erronka solidarioa

Linzatik Leitzarako bidean «isuriko ditugun izerdi tantak ikusgarritasuna aitortzea mezezi duten zerbaiten alde» bota nahi dituzte eta horregatik hasi

Sei familia proiektuaren gidari

Iraitz Uriarte eta Iker Gomezena izan zen hasierako ideia, baina abenduaren 28an Leitzako udaletxeko Batzar Aretoan proiektua aurkeztu zutenetik herriko sei familia bihurtu dira proiektuaren gidari. Hala ere, «ateak zabal-zabalik» dituztela argi utzi dute. «Dagoeneko bidelagun ugari egin ditugu eta ziur gaude askoz gehiago bilduko zaizkigula». Hauek dira lantaldea osatzen duten sei familiak: **1. familia:** Iraitz Uriarte, Aintzane Arraiza, Iraide Uriarte eta Adei

Uriarte. **2. familia:** Iker Gomez, Arantxi Ariztimuño, Ekaitz Gomez eta Eneritz Gomez. **3. familia:** Saioa Mencia, Patxi Lizarraga, Kattalin Lizarraga, Tasio Lizarraga, Garazi Lizarraga eta Haritz Lizarraga. **4. familia:** Ainara Zubeldia, Alain Fernandez, Liher Fernandez eta Maier Fernandez. **5. familia:** Saioa Salbarredi, Xabier Erbiti, Haizea Erbiti eta Ekia Erbiti. **6. familia:** Harkaitz Delgado, Oihana Amundarain, Lur Amundarain eta Auritz Amundarain.

ziren «erronka solidario bihurtzeko ideia mamitzen».

Berehala bat egin zuten herriko sei familiak proiektuarekin eta Leitzako familia bat etorri zitzaizkien gogora: «Udane izeneko alaba dute, eta munduan bost kasu baino ez dituen gaixotasuna du, horrek dakartzan zailtasun eta oztopo guztiekin. Aurten eskolan hasi da. Gurasoek gorpil-aulkian eramaten dute, eta agerian gelditzen ari da gure herriak ez daudela egokituta bestelako mugikortasun eta errealitateak dituzten pertsonentzat».

Udaneren familiari laguntzeko «diru bilketa egitea» okurritu zitzaizkien lehenbizi, «beretzako tratamendu edo gailuren bat eskuratzeko», baina «familiarrekin hitz egin ondoren, haiek hala eskatuta, gure asmoak beste norabide bat hartu zuten: pertsona bakarrean zentratu beharrean, herri osorako onuragarri izan litekeen proiektua aurrera eramatea erabaki genuen, zehazki, behar bereziak dituztenei bizitza errazteko ekarpenak egin eta herritarrengan sentsibilizazioa areagotzeko kanpaina egitea».

Leitza herri inklusiboagoa

Argi dute helburua, eta diotenez, «bat eta bakarra» da: «Leitza herri inklusiboagoa bilakatzeko». Beraien irudiko, «mundu justuagoa eraikitzeko bidean gako garrantzitsua da. Gure aniztasunean denok eskubide berak izan behar genituzke, baina argi dago egunerokoan batzuek oztopo ugari gainditu behar dituztela beste batzuentzako inolako eragozpenik ez dagoen lekuan». Herriko adibideak aipatu dituzte horren seinale: «Leitzan, badira behar bereziak dituzten norbanakoak eta kolektiboak, adinekoak, gazteak zein umeak, eta eguneroko ekintza txikietan zailtasunak dituzte: plaza inguruan oinez edo kalean modu seguruan ibiltzeko, jolas-parkean beste umeen erara jolasteko...». Haiengan jarri dute arreta eta «begirada haiengan jarri dugu».



Kirol erronka eginen duten Iker Gomez –ezkerrean– eta Iraitz Uriarte –eskuinean–.



Lantaldeko haurrak piktogramak lantzen.

nean konturatu gara asko dagoela egiteko, nahi adina lan».

«Gutxieneko zazpi lorpen»

Proiektuaren hasierako eta bukaerako egunak zehaztuak dituzte: «abenduaren 28an hasi ginen, Ikerrek eta Iraitzek sei familioi egitasmoaren berri eman zigutenean, eta bukaera data kirol erronkaren eguna, ekainaren 25-26an izanen da, ilargi betearen bueltan izanen dena». Baina bultzatzaileen hitzetan, «horrek ez du esan nahi proiektua hiltzen utzi behar denik: guktarte horretan gogor aritzeko konpromisoa hartu dugu, eta herria aktibatzea eta norabide berean lan eginen lukeen jendeak eragiten jarraitzea nahi genuke».

«DENOK ESKUBIDE BERAK IZAN BEHAR GENITUZKE»

LHL ERRONKAKO LANTALDEA

Oraingoan, ekainera bitarte, «zazpi lorpen adierazle» aurkeztu dituzte: «lehen sentsibilizazio kanpaina garatzea da; bigarrena herri lan-sarea osatzea; hirugarrena plazara bitarteko bidexka lortzea; laugarrena aniztasun funtzionala dutenentzako aparkalekuak urdinez margotzea; bosgarrena jolas parkea(k) egokitzea; seigarrena komertzioetan piktogramak jartzea; eta, zazpigarrena kirol erronka egitea». Proposamen horiek «gutxienekoak» omen dira, «eta bidelagunak eta proposamenak inguratu ahala, ugaritzen ari zaizkigu». Areago, «izugarri eskertuak gaude era guztietako ekarpenak eta elkarlanerako gonbitak jasotzen ari garelako».

«HELBURUA HERRI INKLUSIBOAGO BILAKATZEA DA»

LHL ERRONKAKO LANTALDEA

Gaur-gaurkoz, herri lan-sarea osatzen ari dira «buru-belarri». Dagoeneko «herriko eragile ugariarekin elkartu» dira eta «bidelagun izateko nahia eta konpromisoa erakutsi digute». Horien artean «lehen bidelaguna eta iparra erakutsi diguna Josune izan da, Udaneren ama. Hasieratik lana asko erraztu digu, berak aurretik egin zuten lana gure eskuetan utziz eta aurrerapausoak emateko ilusioa eta indarra erakutsiz». Baina «udala, Erleta eskola, Amazabal institutua, Okille tailerra, Itzairer Haur Eskola, jubilatuen elkarte, Atekabeltz Herrigunea eta Kaxkabeltz elkarte lanerako prest» agertu direla gaineratu dute: «bakoitzari proposamen zehatzak luzatu dizkiegu, baina bestelako ideiak garatzeko askatasuna ere eman diegu».

Umeak ezinbestekoak

Umeak ere proiektuaren zutabe dira, «hasieratik egitasmoaren parte» eta «ezinbestekoak»: «zergatik ez baliatu aukera herri gintza, auzolana, elkartasuna, elkarlana eta bizikidetzaren balioak eta garrantzia umeengan ere sustatzeko?». Eta hala ari dira. «Umeek, gure laguntzarekin, plazara bitarteko bidexka udalari eskatzeko instantzia bete eta udal bulegoan erregistratu dute; aniztasun funtzionala dutenentzako egokitutako plazak non dauden, egokiak diren eta berriak non sor daitezkeen aztertu dute Arantxa taxilariarekin, piktogramak jartzeko zein motatako komertzioak dauden aztertu dute...».

«Auzolanaren indarra»

Haur eta heldu, baina guztiaren oinarrian «auzolanaren indarra» nabarmendu dute. «Ziur» baitaude «herritarrek gaiarekin sentsibilizatzea eta aktibatzea lortzen badugu, sekulako aldatketak eragin ditzakegula Leitza herri inklusiboagoa bilakatzeko bidean». Erronka aitzakiatzat hartuta, «herritik eta herriarentzat egin nahi dugu lan».

N-121-Arako aurreproiektua solasgai herrian

Udalak Nafarroako Gobernuak N-121-An egin nahi duen '2+1' proiektuaren inguruko bilera egin zuen martxoaren 9an

IZASKUN REKARTE

Martxoaren 23ra arte N-121-A errepiderako 2+1 aurreproiektuaren proposamena dago mahai gainean eta, bitarte honetan, alegazioak eta ekarpenak egin daitezke. Aurreproiektu horren xehetasunei buruz hitz egiteko, udalak bilera informatiboa deitua zuen martxoaren 9an kultur etxean eta hogeitabat pertsona elkartu ziren.

Aldaketa nagusiak

Aitor Elexpuruk alkateak adierazi zuenez «aldaketarik handiena Alkaiagako bidegurutzean, eta Zalainen egingen den biribilgunea» izanen dira.

Alkaiaga eta Berako harrobiaren artean, oraingo biribilgune zatitua biribilgune oso bat bilakatuko litzateke. Biribilgune oso honek bi funtzio izanen litzuzke: alde batetik, noranzkoaren aldaketa erraztea eta, bertzetik, trafikoaren abiadura moteltzea. Gainerakoan, Beratik Iruñea aldera ateratzeko, oraingo sistema aldatuko litzateke eta errepidearen bi noranzkoetako

erriak gurutzatu beharrean, bi fasetan banatuko litzateke sarbidea: lehenik errei bakarra gurutzatu (Irun aldera doana) erdian egingen duten errei berri bateraino eta behin erdiko errei horretan egonik, aukera dagoenean sartu eskuinera Iruñea aldera hartzeko.

Alegazioak egiteko aukera

Elexpururen iritziz, proiektuaren proposamen berriak ez ditu N-121-A errepideak dituen puntu arriskutsu guztiak kontuan hartzen, «Nabasturengo zentrala dagoen eremua, gure iritzirako, aunitz hobetu behar da. Han sortzen den inbutuak berdin segitzen baitu proposamen berrian». Oraingoa «bilera informatiboa» izan da eta «proiektuaren inguruko informazio gehiago nahi duenak udalera hurbiltzeko aukera du».


Azkenik, proposamenean «hainbat gabezia» ikusten dituztela adierazi dute Berako eta Lesakako udalek eta, honen aitzinean, bi udalek Nafarroako Gobernura «alegazioak» bidaliko dituztela iragarri dute.



Martxoaren 9an eginiko bilera informatiboa. UTZITAKOIA



Zalain industrialdean biribilgune bat egitea aurreikusi dute. UTZITAKOIA



Biribilgune zatitua, biribilgune oso egitea aurreikusi dute Alkaiagan. UTZITAKOIA

xirgil
jalone goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Astelehenetik
ortziralera:
07:15etik
aitzina
LABE ZAR
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzina
948 631 076 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA



Iñaki Atxa elizondoarrak bide luzea du argazkilaritzan zein bideogintzan.

'Basabizitza' erakusketa ikusgai izanen da Labiagan

Erakusketan 2011. urtetik hasita mundu zabalean animalia basatiei Iñaki Atxak egindako argazkiak azalduko dira

IZASKUN REKARTE

Martxoaren 27tik aitzinera Labiaga Ikastolako Areto Nagusian, Iñaki Atxa Aranburu elizondoarraren *Basabizitza* argazki erakusketa ikusgai izanen da. Bertaraten direnek, 2011. urtetik hasita Euskal Herrian, Katalunian, Espainian, Polonian, Finlandian eta Ameriketako Estatu Batuetan animalia basatiei ateratako argazkiez gozatzeko aukera izanen dute.

Erakusketa «azken urteetako lanaren emaitza» da eta bi helburu nagusi ditu: alde batetik, «egindako lana plazaratzea» eta, bertze aldetik, jendeari

ikusaraztea «zein polita eta beharrezkoa den natura bere horretan mantentzea eta, bere horretan mantentzen laguntzea».

Erakusketaren ordutegia

Erakusketaren ateari larunbateran eta igandetan 16:00etatik 20:00etara ikusgai zabalik egonen dira. Lehenbiziko egunean erakusketan egonen dela iragarri du Atxak. Gainera, argazkiez gain bideo bat proiektatzeko asmoa du elizondoarrak. Bideoan «gure eskualdeko oihanetako biztanleei grabatutako irudiak agertuko dira».



UTIZTAKOIA

Karrikak morez jantzi dituzte

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan filma pantailaratu, herri kolore morez apaindu, herrian barna bizikleta martxa, emakume taldeko material salmenta eta Lizuniagatik abiatuta mendi martxa antolatu zuen Goldatz talde feministak. Bertze behin ere, herriko emakumeek karrikak gogoz bete zituzten.



UTIZTAKOIA

Kaxernako skate-parkea itxita

Udalak jakinarazi duenez «lanak bukatu artean bertan ibiltzea, eta eremu horretara sartzea debekatua» egonen da. Izan ere, «arrisku egoerak sortu» daitezke eta «norbaitek min hartu dezake». Gainera, «Kaxernako eraikina botatzeko asmoa» ere baduela adierazi du.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziratera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Jauzena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



JAIONE - GOXOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

131.533 euroko aurrekontua du aurten Beti Gaztek

Joan den urteko urrian sartutako batzordeak segituko du lanean eta kuotak berdin mantenduko ditu

AITOR AROTZENA

Gauregun 1.315 bazkide dituen Beti Gazte elkarteak urteko batzarra egin zuen martxoaren 6an Harriondoan. Joan den urteko batzarra urrian egin zen eta orduan hasi zen zuzendaritza batzordeak segituko du lanean, Ander Abuin presidentea buru dela. Nora Eneterreaga da lehendakari-ordea eta instalazio eta materialen arduraduna, idazkaritzan Lourdes Danboriena eta Modesto Maia ari dira, diruzaintzan Ana Errandonea eta Idoia Sunsundegi, kirol koordinatzailea Argiñe Ordoki da, kultur koordinatzailea Amaia Telletxea, komunikazio arduraduna Olaia Otxoteko eta Covid arduraduna Jesus Mari Zapirain. Joan den urria arte presidente izan zen Jose Luis Sunsundegiren lana eskertu zuten denek. Kuotak ere berdin mantenduko dituzte.

Joan den urtean hainbat ekitaldi bertan behera utzi behar izan zituen elkarteak, Covid-19a dela eta, bai kultur arloan (margo azkarreko lehiaketa, argazki rallya, kultur ir-

teerak, ajoarriero lehiaketa, talde egonkorren asteroko entseguak...), baita kirolean ere (Lesakako Mendi Itzulia, futbol ligak, martxa zikloturista, BTT itzulia, Zubigaineko krosa...).

Aurtengoari dagokionez, 131.533 euroko aurrekontua onartu zuen ahobatez batzarra eta ohiko kirol eta kultur ekitaldiekin batera, gehiago ere aurreikusi dituzte: argazkilaritza eta sukaldaritza tailerrak, errekararen eguna, txirrindularitza gazteen ekitaldiak, hitzaldiak... Neurri zorrotzak hartuko ditu Beti Gazte hauek gauzatu ahal izateko. Erraterako, maiatzaren 9rako Salvador Yanci zeneraren omenez txirrindularitza irteera aurreikusia dago.

Aipatzekoa da komunikazio arloa sendotu duela Beti Gazte, web orri ofiziala eta sare sozialak berritzeaz gain, difusio taldea sortu baitu bazkideekin harreman estuagoa izateko eta sei hilabeteko argitaratzeko asmoa duten aldizkariaren lehenbiziko zenbakia ere karrikaratu baitu.

Bidasoko Bide Berdearekin loturaz aritzeko bilera izan dute Iruñean

Herrigunea Bidasoko Bide Berdearekin lotzeko egitasmoa aurten hasteko asmoa dute. Dagoeneko proiektuaren erredakzio lanean ari dira eta gaiaz solastatzeko, Ladis Satrustegi alkatea eta Mari Jose Larraioz udal idazkaria Iruñean izan ziren martxoaren

4an eta Nafarroako Gobernu-ko ordezkariekin bildu ziren. Alkateak aipatu digunez, «poliki-poliki, aitzinera pausoak ematen ari gara guretzat estrategikoa den proiektu garrantzitsu honekin. Martxoan Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena sinatzekotan gara».



MIKEL LEIZA

Beti Gazteko futbolariak ekipazio berria

Beti Gazteko gizonezkoen eta emakumezkoen futbol talde nagusiek ongi hasi dute denboraldi berezia. Martxoaren 13an Ordiziaren kontra Mastegin jokaturako partidaren atarian (3-0 irabazi zuen hau idazterakoan lider den mutilen taldeak), aurtengo ekipazio berriaren aurkezpena egin zuten.

'Auskalo zeinek jarriak saiorako txartelak larunbatean

Auskalo zeinek jarriak bertso emanaldia eskainiko dute apirilaren 17an Linddurren-borda sagardotegian Eñaut eta Unai Agirre anaiek. Bortzirietako bertso eskolak udalaren laguntzaz antolatu du emanaldia. 14:00etan bazkaria izanen da Linddurren-bordan. Txartelen salmenta (32 eurotan) martxoaren 27an, larunbatean 18:00 eta tik 20:00etara egingen dute Eskolttikin. Edukiera mugatua izanen da eta Covid-19aren krisiak eragindako uneko arauak beteko dituzte.

Zakurrek aziendak eraso dituztela salatu du udalak

Zakur batzuek aziendei eginitako erasoak direla eta, udalak «arduraz jokatzeko, errespetua eta elkartasuna eskatu die zakurren jabeei. «Gutxiengo bat dira arduragabe jokatzaren duten zakurren jabeak», Baina, zoritxarrez, jabe horien «jarreraren ondorioak hagitz gogorak dira abeltzaintzat eta ez dira diruarekin konpontzen». Bertzela ere erreza ez den ofizio batean horrelako erasoak gertatzea «hagitz gogorra» dela gaineratu du, eta eraso horien «beldur bizi behar izaten dute abeltzainek».

744 484 361
ttipi-ttapa

Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

Altxata elkarteak 30 urte beteko ditu aurten

Urte osoan urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi eginen dituela iragarri du kultura eta kirol elkarteak

IRUNE ELIZAGOIEN

Pandemia egoera bete betean gauden honetan, denak ez dira albiste txarrak. Izan ere, ospakizun urtea da 2021 hau Altxata Kultura eta Kirol elkartearentzat. Sortu zela 30 urte beteko dira aurten.



Aurten ez da horrelakorik izanen.

Ekitaldi xume baina bereziak
Euskararen alde eta herriarentzat hainbartzeko egin duen elkarteak jakitera eman du, egoerak uzten duen neurrian eta segurtasun neurriak betez, aurten hainbat ekitaldi antolatzeko asmoa duela.

Ez da batzar orokorrik eginen
Aurtengo egoera dela eta, urteko batzar orokorra presentzialki ez egitea erabaki du Altxata Kultura eta Kirol elkarteak. Hala ere, bazkideei urteko kontuen nondik norakoak bidaliko dizkiete.

Barbeneko Juliana Elizaldek 101 urte bete ditu

Martxoaren 16an 101 urte bete zituen Barbeneko Juliana Elizaldek. Egoerak ospakizun handirik egiteko aukerarik ematen ez badu ere, lore-sortak jaso zituen eta ingurukoekin berendu berezia eginez ospatu zuen bere eguna. Zorionak Juliana eta segi bizkor!



101 urte bete ditu Julianak.



UTZITAKOA

Giro onean ospatu dute M8 herrian

Aurreikusita zegoen egitaraua betez, 11:30ean plazan elkartu eta 30 lagun inguru hurbildu ziren Pantxika Lamurren antzerkia ikustera. Ondotik, trikitilarien laguntzarekin plazara itzuli eta olerki bat errezitatu eta kantua kantatzen aritu ziren musikarien laguntzarekin. Frontoia ere pankartez apainduta gelditu zen.

Oihan enkantea eginen du udalak Gorospilen, Baxtan Borda eta Etxaburun

Gorospil, Baxtan Borda eta Etxaburu alderdietan baso aprobetxamendua esleitzeko iragarkia argitaratu du udalak. Paraje hauetan bakantzeak, haizeak erabat botatako zuhaitzen bilketa eta erabateko bakantze lanak eginen dituzte. Lanak egiteko urtebeteko

epea izanen dute. Baldintza administratiboen orria udalaren webgunean egonen da interesatuen eskura, eta bertan aurkeztu beharko dira eskaintzak. Enkantea jendeurrean eginen dute horretarako argitaratuko den iragarkian adierazitako egunean.



MENDIKO
JATETXEA

Sagardotegiko menua eta karta
EGUNERO IREKITA



[Segurtasun neurriak betetzen ditugu]

Ibardin-BERA | www.mendikoibardin.com | Erreserbak egiteko: T. +34 948 63 07 08 ☎ +34 670 36 50 11

Haur, gazte eta helduek Emakumeen Nazioarteko Egunari keinu egin diote

MAITE. ANA ETA ITZIAR

Martxoaren 8aren bueltan, zenbait ekitaldi antolatu zituen herriko emakume taldeak. Haur, gazte eta helduek bat egin zuten Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolaturiko hitzorduekin.

Tailerra eta zinea

Martxoaren 6an, larunbatean, *Emakumeak eta gure gorputza* izenburupean tailerra izan zuten Amaia Urietaren eskutik; hiru orduko tailerra izan zen eta talde polita bertaratu zen.

Arratsaldean, zine saioa izan zen; *La fuente de las mujeres* filmaz gozatzeko aukera izan zuten.

Film laburra eta elkarretaratzea

Martxoaren 7an, hau da, igandean, ttikienen txanda izan zen eta haiendako *Minusculas* film laburra pantailaratu zuten.

Bukatzeko, martxoaren 8an, astelehenean, ilunabarrean, Herriko Etxen jarritako lona more ederraren aintzinean elkarretaratzea egin zuten.



Martxoaren 6an tailerra izan zuten eta 8an elkarretaratzea. MAITE, ANA ETA ITZIAR

Herri kirol txapelketako sailkapenean goi-goian daude herritarrak

Gaztetxoak herri kiroletako txapelketan aitzinera segitzen dute. Martxoaren 14an erakustaldi ederra eman zuten. Antsoainen izan zuten hitzordua. Igantziarrak goi-goian daude sailkapenean. Segi horrela gazteak eta zorte on hurrengo jardunaldian!



Antsoaingo jardunaldian.

Baratzean lurra prestatzen eta landatzen aritu dira ikasleak

Eskolako haurrak, udaberriarekin batera hasi dira ateraldi ttiki batzuk egiten. Eguneko zenbait txango egin dituzte eta kanpaldi ttiki bat ere egitekoak dituzte. Bertzalde, urtero bezala, eskolan baratzean lanean hasiak dira. Lurra prestatu eta landareak landatu dituzte.



Eskolako baratzea.

Eskola atarian bi metroko rokodromoa paratzeko lanean ari dira

Eskolak aspaldi aurkeztutako rokodromoaren proiektuari hasiera eman dio. Atarian jarriko dute; bi metroko altuera izanen du eta dagoeneko hasiak dira panelak instalatzen. Lerro hauek irakurtzen ditugunerako haurrak bertan izanen ditugu bere abileziak erakusten.



Panelak instalatu dituzte.

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com



EGUNeko MENUA
SAGARDOEGIA MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A

Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11

@zumarbeld@hotmail.com

www.zumarbeld.es



Amets Arzallusek 'Miñan' liburua aurkeztuko du

Ibrahima Baldaren bizitza kontatzen duen bere eleberriaz solastatzera etorriko da apirilaren 10ean

NEREA ALZURI

Amets Arzallus bertsolari eta idazle ezaguna herrian izanen dugu apirilaren 10ean. Udalak gonbidatuta, 2019an argitaratu zuen *Miñan* bere eleberria aurkeztuko du 18:00etan eskolako gimnasioan.

Ibien

Miñan eleberria Ibrahima Baldaren bizitzaren kronika da, hark ahoz eta Amets Arzallusek letraz idatzia. Irunen ezagutu zuten elkar, 2018an, anaiaren bila hasitako bideak haraino eramane baitzuen. Konakrytik

Nzerekorera joan zen lan bila eta han aritu zen amak anaia ttikia falta zela erranez deitu zion arte. Haren bila abiatu zen. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzai-leekin topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu... Hala izan zen Afrikatik Europarako egin zuen bidea.

Liburua Balderen kontakizunean oinarrituriko historia da, berezia duelako zauria eta kontatzeko modua, hantxe balego bezala, solastatzen delako. Bizitza horietako bakoitza bakararra delako, unibertuala.

Mendi lasterketa alde batera uztea erabaki du Ekaitza Elkarteak

NEREA ALZURI

Zuzen bidean, Arantzako V. Mendi Lasterketa maiatzean egingen litzateke, baina joan den martxoaren 10ean, Ekaitza Elkarteak juntako kideek egingandako bileran, aurtengo lasterketa ez egitea erabaki zuten, osasun egoera hobetu arte.



Xabi Iturria 2019ko mendi lasterketan.

Hainbat ekitaldi ospatu dituzte Emakumeen Egunaren bueltan

NEREA ALZURI

Emakumeen eguna egunero dela eta berdintasunaren bidean oraindik ere zer egina badela aldarrikatuz joan zen emakumeen eguna.

Egun horren bueltan, zenbait ekimen izan ziren. Martxoaren 6an, Mentxu Peña Lizarazuk *Zuretzat* liburua aurkeztu zuen. Simone Beauvoir idazle, filosofo eta feminista frantziarraren *Bigarren sexua* liburua oinarri hartuta, azken urteotan emakume eta gizonen arteko harremanak nolakoak diren kontatzeko, eskutitz sail bat idatzi

dizkio Simoneri. Albisteen edo kontakizunen bilduma da *Zuretzat*. Zoritxarrez berri txarrak gehiago dira onak baino, berdintasuna nahi baino urrutia-goa baitago.

Biharamunean, 25 bat emakumek mendi itzulia egin zuten eta Emakumeen Memoriaren Baratzean bukatu zuten. Arratsaldean, *Cholitas* filma ikusteko aukera izan zen, Boliviako bortz emakumek Ameriketako mendirik altuena igan zuteneko espedizioari buruzkoa.

Martxoaren 8an, berriz, elkarretaratzea egin zuten plazan.



Peñaren aurkezpenean, mendi ateraldian eta emakumeen baratzean hartutako irudiak.



Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

Arduo
arropa-denda
etxeko osagarriak | lenteria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINBERTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

Hileko azken larunbatetan irekiko dute Garbigunea

Zerbitzua hobetzeko asmoz, lehen aldiz larunbat honetan, martxoak 27, irekiko dute 09:00etatik 13:00etara

TTIPI-TTAPA

Astero astero, astelehenetik ortzirralera 12:00etatik 15:00etara irekia egoteaz gain, hemen dik aitzinera hilabetero azkeneko larunbatean ere irekiko dute Alkaiagako industrialdean dagoen Garbigunea, 09:00etatik 13:00etara.

Beraz, larunbat honetan, martxoak 27, irekiko dute lehen aldiz. Bortziritarrei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzeko asmoz eta, batez ere, Garbigunera hurbiltzeko aukera zabaltzeko intentzioarekin, hartu du erabakia Bortzirie-

tako Hiri-Hondakinen Mankomunitateak.

'Baiko bertze arrainak' erakusketara bisita

Berako Ricardo Baroja ikastetxe ikasleak Alkaiagako Garbigunean izan ziren martxo hasieran eta erreketan eta itsasoetan bukatzen duten hondakinek sortzen dituzten arazoengatik inguruan solasean aritu ziren. Bisitan Bortziritako Garbigunea ezagutzeko aukera izan zuten, eta bertan zein hondakin mota biltzen dituzten eta nola kudeatzen



Ricardo Baroja eskolako ikasleak erakusketan bisitari.

dituzten ikusi zuten. Hondakinen prebentzioalduzuten, hau da, zer egin gure egunerokotasunean ahalik eta hondakin gutien sortzeko; pila berrerabilgarriak, oihalezko poltsak, arraina erosteko tuperak erabili eta erabilera bakarrekoko plastikoa saihestea, bertzeak bertze.

Azkenik, erabilera bakarrekoko plastikozko botilak saihesteko, kantinplora bana bana tuzieten.

Bortziritako Mankomunitateak, Nafarroako Hondakinen Partzuergoak eta Izarreibarko Mankomunitatearen artean *Ibaiko bertze arrainak* erakusketara sortu dute. Erakusketaren helburua herritarren artean gure erreketan eta itsasoetan bukatzen dituzten hondakinek sortzen dituzten arazoengatik inguruan hausnarketa bultzatzea da. Erakusketak astelehenetik ortzirralera dago ikusgai (12:00-15:00).



UTZITAKO ARGAZKIA

Berriz ere Osasun Zentroaren aldeko elkarretaratzeak

Joan den urte hondarrean egindakoaren bidetik, berriz ere Lesakako Osasun Etxearen atarian elkarretaratzeak egin hasiak dira, *Zaindu dezagun gure Osasun Etxea* goiburupean. Asteazkenero 10:00etan paratu dute hitzordua.

suteia-zaldain
instalazioak
IGOGAILUAK

15 Urteko esperientzia

**PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK**

1 KANPOKO IGOGAILUAK
Kanpoko fatxadak guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK
Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aulkian daudenentzako egokituak.

3 IRISGARRITASUNA
Mugikortasun arazoak dituzten eta gorpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egin ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com



Alkate eta suhiltzaileek Belateko tunel sarrera itxi zuten arriskua salatzen. JUAN MARI ONDIKOL

Belateko tunelaren segurtasun gabezia salatu dute

N-121-A inguruko alkateek eta Oronozko suhiltzaileek bi minutuz moztu zuten errepidea martxoaren 16an

TTIPI-TTAPA

Arrisku handikoa, segurtasuna orain! pankarta aitzinean zutela, 30 bat alkatek eta Oronozko parkeko suhiltzaileek bidea itxi zuten martxoaren 16an, arratsaldean, bi minutuz, Belateko tunelaren iparraldeko ahoan. Tunelak Europar Batasunak ezarritako segurtasun-eskakizunetara egokitzeko atzerapena salatu zuten, eta nazioarteko garraioa errepidetik kentzea aldarrikatu zuten.

Alkateek eta suhiltzaileek ohartarazi zuten «tunelaren arrisku-mailak okerrera egiten duela urtetik urtera eta kamioien kopurua handitu ahal da». Gogoan dute, gainera, azkeneko gobernuek «15 urteko epea» markatu zutela Belateko tunelaren segurtasun-araudira egokitzeko. «Epea amaituta, egungo gobernuek deus egin gabe segitzen» due-la salatu zuten.

64 alkatek eta 33 suhiltzailek sinatutako oharra

N-121-A errepidearen inguruko udalerrri eta herrietako 71 alkatek eta Oronozko parkeko 34 suhiltzailek sinatutako oharrean, «egunero Belateko eta Almandozko tuneletatik pasatzen diren milaka erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko premiako neurriak» eskatuko dizkiote Nafarroako Gobernuari. Adierazi dutenez, «ulertezina» iruditzen zaie «egungo gobernuaren jarrera. Azpiegiturak duten arrisku maila handiaren jakitun dira baina ez dute neurriak hartzen eta horren ondorioz, egunero tunel barrenean sutea izateak sortuko lukeen arrisku larriari aurre egin behar diogu».

Arrisku maila, gainera, «urteak urtera handiagoa» dela diote alkateek eta suhiltzaileek, «merkantziak garraiatzen dituzten ibilgailu astunen trafiko

koa gero eta handiagoa delako». Salatu dutenez, «gobernuak segurtasun araudira egokitzeko 15 urteko epea izan zuen. Epea bukatu da baina oraingo gobernuek deus egin gabe segitzen du». Araudia «argia» dela gaineratu dute: «kontua ez da Europak jar ditzakeen isun ekonomikoak bere gain hartzea. Isunetik harago, tunelak behin-betiko egokitzeko neurriak hartu behar dira, epe laburrean erabiltzaileen segurtasuna ziurtatzeko».

Mobilizazio gehiago eta eskaera zuzena

Martxoaren 17an Bernardo Ziriza Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesio kontseilariari zuzendutako eskaera aurkezteko zuten, alde batek, «behinbehinean, eta azpiegitura horiek aipatutako zuzentzarauak eskatzen duen segurtasunmailara behin-betiko egokitzen ez diren bitartean, premiako neurri osagarriak ezarri eta hartzeko» eskatuz, eta bertetik, «tunelaren segurtasuna areagotzeko hartuko diren edo indartuko diren neurri alternatiboak, horien probak barne, arriskuen analisi baten bidez jakinarazteko». Aitzinera begira, mobilizazio gehiago egitea ere ez dute baztertu.

Baztan-Bidasoko 34. Bertso Paper Lehiaketa abian da

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Bertso eskolak eta Berako Kultur Batzordeak Baztan-Bidasoko 34. Bertso Paper Lehiaketa antolatu dute, Baztan-Bidasoa inguruan bizi direnentzat. Lanak maiatzaren 3tik 14ra aurkez daitezke, paperen Berako Kultur Etxean eta e-mailez kultura@bera.eus helbidean. Euskarazko, jatorrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketaren batean saritu ez diren bertsoak bakarrik onartuko dituzte eta norberak aukeratuko du gaia, doinua eta neurria.

Ohi bezala, parte-hartzaileak lau mailatan banatu dituzte: A maila: 10 urte artekoak. Bertso bat edo bi koplak osatu beharko dituzte. Saria: trofeoa eta 50 euro (lehenengoak) eta trofeoa eta 30 euro (bigarrenak). B maila: (11-14 urte) Bi bertso edo lau koplak egin behar dituzte guttienez. Saria: trofeoa eta 100 euro irabazleak eta trofeoa eta 70 euro bigarrenak. C maila: (15-18 urte) guttienez lau bertso osatu beharko dituzte. Saria: trofeoa eta 150 euro lehenengoak eta trofeoa eta 120 euro bigarrenak. D maila: 18 urtetik goti. Guttienez 8 bertso. Saria: trofeoa eta 200 euro garaileak eta trofeoa eta 150 euro bigarrenak.

BERAKO UDALA

ALKATEAREN EBAZPENA –HIRIGINTZA–

Berako Alkateak, otsailaren 26an emandako 46/2021 Ebazpenaren bitartez, 1. poligonoko 14. parzelako –Zalain auzoa 23– Xehetasun Azterlana, onetsi zuen hasiera batez. Espedientea jendaurrean izanzen da hogeit lanegunez, dagokion iragarkia NAON argitaratu ematen denetik.

Bera, 2021.03.16
Aitor Elexpuru Egaña

Txirrindulariak sasoiko dabiltza azken aldian

Aitor Igoak lehenbiziko postua lortu zuen Iratxen eta Eneit Bertizek bigarrena eta Koldo Herrerak hirugarrena Kaparrosen

MAIDER PETRIRENA

2020an pandemia zela eta txirrindulariak lasterketarik gabe gelditu ziren. Aurten, ordea, horiek berrartu eta aitzinera egiteko lanean ari dira. Martxoaren 6an abiatu zituzten BTT lasterketak Iratxen eta bertan hainbat herritarrek parte hartu zuten: hasiberrien kategorian, Aimar Agesta Hernandorena; kimuetan lehenbiziko urtea izan zuen Ander Apeztegia Martinezek; eta bigarrena Ander Larraburu Hernandorenak; eta infantiletan bigarren urtea daramatenen artean izan ziren Aitor Igoa Arretxea, Mikel Bastante Rodriguez eta Unax Larraburu Hernandorena.

Txapelketak biharamunean, martxoaren 7an, izan zuen segida. Kadeteak eta jubenilak Kaparrosen izan ziren.

Kadeteetan, lehenbiziko urtean, herriko bi ordezkari izan ziren: Markel Agesta Hernandorena eta Oihan Apeztegia Martinezek hain zuten. Bigarren urtekoen artean Eneit Bertiz Apeztegia eta jubeniletako bigarren urtean Koldo Herrera Urroz izan ziren.

Herritarrek aski emaitza onak lortu zituzten: Aitor Igoak lehen postua lortu zuen, Eneit Bertizek bigarrena eta Koldo Herrerak, berriz, hirugarrena. Zorionak denei eta segi horrela kirolaz disfrutatzen!

Bi herritar Espainiako Openean

Koldo Herrerak Kaparrosoko lasterketari Espainiako Openean lehen lasterketan eman zion segida eta lasterketa horretan izan zen Igor Agesta Agirre herritarra ere.



Eneit Bertiz bigarren postuan, Koldo Herrera hirugarrenean eta Espainiako Opeña.



UTZITAKOA

Hegoa Irazoki piano jaialdian saritua

Otsailaren 27an eta 28an izan zen Andoaingo piano jaialdiaren XVI. edizioan Berako Musika Eskolan ikasten duen Hegoa Irazoki Urtxegi herritarra saritua izan zen. Bakarkako lanetan, 11 urte arteko musikarien kategorian, zilarrezko domina jaso zuen sunbildar gazteak. Zorionak Hegoa eta segi musikaz gozatzen!



UTZITAKOA

Nahia Bertiz kirol jokoetako finalean

Aitzineko zenbakian Nahia Bertiz Babace herritarra Malerreka-ko pilota txapelketako finalean izan zela aipatu genuen. Horrez gain, martxoaren 13an Nafarroako XXXIV. Kirol Jokoetan, kimu mailako finalean parte hartu zuen. Zorionak Nahia, egunen batean txapela herrira ekarriko duzu!



Ezkurran kuadrilla ederra bildu zen mendi itzulia egiteko.



Donezteben eskola pareko biribilgunean bildu ziren.

Ospakizun eta aldarrikapen eguna izan da M8a

Eskualdeko elkarretaratzea Donezteben izan zen, baina inguruko herrietan ere sumatu zen Emakumeen Eguna

TTIPI-TTAPA

Emandako pausoak ospatuz eta eman beharrekoak gehiago direla aldarrikatuz, Emakumeen Egunari keinu egiteko hainbat ekitaldi izan zituzten Malerrekan.

Ospakizunak

Ezkurran goizean mendi buelta eta arratsaldean haurrentzako *Printzesa edo igela, nire aukera* ikuskizuna izan zituzten martxoaren 6an. Egun berean, hainbat herritarrek, Emura talde feministarekin bat eginez, Iturengo plazatik Doneztebera lila toia egin zu-

ten. Donamarian ilunabarrean Mendi Abesbatzaren kontzertuak girotu zuen eguna.

Aldarrikapenak

Larunbatean Iturenen eta astelehenean Donezteben *Ospatzeko aunitz dugu, aldarrikatzeko gehiagolepean* jende andana bildu zen. Horrez gain, hainbat herritako udalek, feminismoari keinu egiteko, lona moreak zintzilikatu zituzten. Ikastetxeetan ere gaia landu nahi izan zuten. Pulunpa eskolan, erraterako, mural erraldoi bat eraiki zuten.



Mendi Abesbatzak Donamariako elizan kontzertu gustagarria eman zuen.



Iturenen ere lona moreak atera zituzten.



Igogailuen instalazioak.

Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400

www.inelsazener.com




Sunbilla · Tel: 948 450 862





Carnes Sein Haragiak, S.L.

Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

'Bideak' dokumentala apirilaren 3an

Dokumental hori bera maiatzean Donamarian eta Amaiurren ikusi ahal izanen da

MARGA ERDOZAIN

Aritz Ganboa de Migel artzainaren erronka abiapuntu duen eta Xabier Unanua Goikoetxeak zuzenduriko *Bideak* dokumentala pantailaratuko dute apirilaren 3an, lehenbiziko larunbatean, zineman.

Sinopsia

Aritz Ganboa, gazta bat esku artean duela, Nafarroako mendietan barrena erronka batean murgiltzen da bere arbasoen herriak lotzeko 170 kilometroko ibilbidea eginez, Sakana Arruazutik Erronkariko

Izabara. Artzaintza ardatz hartuz, ibilbidean hamaika lekukotza biltzen ditu, landa eremua eta kultura balioan jartzeko eta bizimodu bat delat aldarrikatzeko.

Maiatzean Donamarian eta Amaiurren

Maiatzaren 1ean eta 2an, larunbatean eta igandean, dokumental hori bera Donamarian eta Amaiurren ikusi ahal izanen da. Zehazki, Donamarian 18:00etan dute hitzordua; eta Amaiurren 17:00etan bilduko dira.

Mendi Abesbatza eta Pleura ortzirale eta larunbatean

Aste bukaera aldera, musika doinuek girotuko dute herria. Hilaren 26an, ortziralean, Mendi Abesbatzaren kontzertua izanen dute elizan (20:00etan) eta larunbatean Pleura musika taldeak *Bakarriketa* diskoa aurkeztuko du (19:30ean).

Errekako bazkide egiteko deia egin dute

Erreka Kirol Elkarteak bazkide egiteko galdetegia jarri du interesa dutenen eskura. Elkar-tearen sare sozialetan edo www.erreka.org atarian dago bete beharreko galdetegia. 14 urte bitartekoek 15 euro eta 14 urtetik goitikoek 25 euro ordaindu beharko dituzte.



UTZITAKOA

Jaioberrien zuhaitzak landatu dituzte

2019an sortutako haurren zuhaitzak martxoaren 7an landatu zituzten eta 2020an sortutako haurren zuhaitzak, berriz, martxoaren 14an landatu zituzten Bordaxuri inguruan. Joan den urtean, Covid-19aren ondorioz, 2019an jaiotako haurren zuhaitz landaketa ez egitea erabaki zuen udalak.



UTZITAKOA

Eskubaloi entrenamenduak hasi dituzte

Denboraldi honetan ligetan izenik eman ez badute ere, Errekako eskubaloi taldeak entrenatzen hasiak dira. Aurten bederatzi talde dituzte: senior mutilak, jubenil mutilak, kadete neskak, infantil mutilak, infantil neskak, alebin mutilak, alebin neskak, benjaminak eta prebenjaminak.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO MASSI MERIDA BIKES
BERGAMONT BH COLUER LOOK



GASOLIOA ETXERA
ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA



- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERKATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

Udaletxearen atzealdean desfibriladorea jarri dute

Jarri aurretik herritarrek ikastaroa egiteko deialdia egin zuen Udalak



Zenbait herritarrek lehendik ere ikastaroa egina zuten.

AINTZANE LEIZA

Udalak desfibriladorea jarri du herrian. Udaletxearen atzeko aldean kokatu dute (frontoiaren ondoan hain zuzen). Horrela, bihotzeko larrialdi baten aurrean, erantzuna bat-batekoa izateko aukera eman nahi izan du. Jarri aurretik, herritarrei ikastaroa egiteko deialdia egin zien eta ikastaro horretara joan ez ziren beste hainbat herritarrek ere, lehenagotik, ikastaroa burutua dute.

Frontoiko argien funtzionamendua aldatu du Udalak

Leitzako enpresa bat kontratatuta, herri argiteria berritu dute herrian, LED sistemako argiak jarri. Honela, argiaren kostua murrizteaz gain, argi kutsadura ere murriztu da. Argiteri sistema honek egiten duen argia osorik aprobetxatzen da herrian. Argiaren kalitatea eta kantitatea hobetu dira.

Horrez gain, frontoiko argiaren funtzionamenduan aldatu gertatu dira. Orain, frontoiaren barruan dagoen botoi gorria sakatuz, hiru argi dohainik izanen dira bertan dabilenarentzat. Gainerako argiak piztu ahal izateko euro bateko txanpona sartu beharko da bertan dagoen kutxan. Kutxa batekin geratzen diren argien erdiak piztuko dira eta beste kutxan beste txanpona sartuta, gainerakoak. Hauek 30 minutuko iraupena izanen dute.

DESKONTUAK MALERREKA TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
eskeletan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

EZ

%10 DESKONTUA
produktuetan

Intzakardi, z/g | DONEZTEBE
T. 948 45 03 64

<p>%10 DESKONTUA pijama eta barruko arropetan</p> <p>Zazpigarutze, 1 DONEZTEBE T. 948 45 02 52</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>%10 DESKONTUA 100€tik gorako erosketetan</p> <p>Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Kale Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71</p>	<p>%5 DESKONTUA kontsultetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE lorea@kimetzbelardenda.com</p>
<p>%5 DESKONTUA kosmetikan</p> <p>%5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora.</p> <p>Ameztiá DONEZTEBE T. 948 45 01 63</p>	<p>%10 DESKONTUA</p> <p>Eliza, 18 behea DONEZTEBE T. 948 45 02 86</p>	<p>%10 DESKONTUA hamar saiko bonoan</p> <p>Elizagibela, 4 behea DONEZTEBE T. 607 85 32 08</p>	<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12</p>
<p>%10 DESKONTUA erloju eta bitxietan</p> <p>30€tik gorako erosketetan</p> <p>Ameztiá, 1 DONEZTEBE T. 948 45 09 25</p>	<p>%5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramailetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzbelardenda.com</p>	<p>%5 DESKONTUA zakur eta katuen pentsuari</p> <p>Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45</p>	<p>%10 DESKONTUA oinetakoetan</p> <p>Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89</p>



Kolonbarioak eraiki dituzte hilerrian.

Kolonbarioak eskatzeko aukera ostiralera arte

Guztira 35 kolunbario daude eta bakoitzeko 320 euro ordaindu beharko dira

FERMIN ETXEKOLONEA

Udalak, hilerrian kolunbarioak eraikitze lanak akituta, herritarren eskura jarri ditu. Guztira 35 kolunbario egin dituzte eta interesa dutenek horiek erabiltzeko izena eman eta 320 euroko ordainketa egin beharko dute udalaren kontu zentzuan.

Ostirala, martxoaren 26a, izanen da izena emateko azken eguna eta herritarrek 11:00 arte jakinarazi ahal izanen dute. Ondotik, izena ematen dutenen artean, zein egokitu zaien jakiteko jendaurreko zozketa egingen dute (zozke-

taren eguna eta ordua etxetik banatuko den bandoan zehaztuko dutela aurreratu dute). Ordainketa egin ez dutenak zozketatik kanpo geldituko dira.

Egur loteak

Azken aldira udala egur loteak banatzen ere aritu da. Hala ere, oraindik zenbait lote eskuragarri daudenez, interesa dutenek eskaerak egiteko aukera dutela argitu du. Informazio gehiago nahi izanez gero, herritarrek udaletxera bertara joanez eskuratu ahal izanen dute.

3.000 Crytomeria landatu dituzte Zubietan, Arburu inguruan

Udalak Arburu 3.000 Crytomeria landatu ditu hiru hektareako lur eremuan. Lanak abendu bukaeran hasi zituen Berdabio enpresak eta martxo hasieran akitu zituzten. Landaketaren kostua guztira 15.657,41 eurokoa izan da (BEZik gabe).



Berdabio enpresak egin du.

Hilabete behin masaje zerbitzua izanen da Ezkurran

Hilabete lehenbiziko astelehenetan masaje zerbitzua izanen da Ezkurran. Masaje geriatrikoa, erlaxatzailea, kontrakturen aurkakoa, terapeutikoa... jaso nahi dutenek ordua hartzeko aurretik 649 53 10 70 telefonora deitu behar izanen du.



Aurretik hitzordua behar da.

80 urtetik goitiko ezkurzarrek txertatzeko aukera izanen dute

Ezkurrako 80 urtetik goitiko herritarrei txertoaren lehenbiziko dosia apirilaren 7an, lehenbiziko asteazkenean, paratuko dietela jakinarazi dute. Martxo erditsuan Donztebako osasun etxetik jaso zuten deia pozik hartu dute herrian eta Ezkurrako Udalak

aurreratu duenez, ordua zehazteko adinekoei Iruñetik deituko diete. Pfizer txertoa izanen da paratuko dietena eta herritarrak txertoa paratzerantz eraman eta ekartzeko garraio zerbitzua ere paratuko diela aurreratu nahi izan dute.

Oinarrizko gaitasun digitalei buruzko ikastaroa ematen ari dira Ezkurran

Nafar Lansarek antolatuta, oinarrizko gaitasun digitalei buruzko ikastaroa ematen ari dira herrian. Joan den astelehenean hasi zuten eta ortzegunera bitarte egunero izena eman zuten hamahiru lagunak bilduko dira udal-etxean, 09:00etatik 14:00etara.

Guztira 25 orduko ikastaroa izanen da eta parte-hartzaileek, besteak beste, administrazio publikoetako on-line tramiteak segurtasunez egiteko eta bideodeiak egiteko plataformak erabiltzeko beharrezko gaitasunak garatuko dituzte.




BIDASOA ascensores

IGOGAILUEN SEKTOREAN ENPRESA LIDERRA GARA



IRUN: Primautzar 19 - T. 943 05 90 53
ERRENTERIA: José María Usandizaga 8 - T. 943 96 93 49

Ezkurrako herritarrei zerbitzua emateko araztegia egingen dute

415.000 euroko kostua izanen du, eta ez da ur zikin gehiagorik isuriko Aztugo errekarara

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesioko Departamentuak, Nafarroako uren saneamenduaren arduradun den NILSA sozietate publikoaren bidez, araztegi bat jarriko die Ezkurrako 146 biztanleei. Proiektuak 415.000 euroko kostua izanen du eta 2022an egingen da. Horrela, ur zikinak Aztugo errekarara isurtzea saihestuko da.

NILSAko talde teknikoak eta Ezkurrako Udaleko ordezkariak, Miren Jaione Zabalo alkatea buru zutela, Beintza-Labaiengo araztegia bisitatu zuten martxoaren 13an. Instalazio hori Ezkurrak datorren urtetik izango duenaren antzekoa da.

Bisitaldian, herri txiki horietarako proiektatzen den araztegi-eredua azaldu da, sistema sendoa behar baitute, mantentze-lan gutxi eskatzen duena, eta, ahal den neurrian, energia elektrikorik gabe funtzionatzen duena.

Gaur egun, Nafarroako herri txikiak edo leku sakabana-tuetako 11.000 biztanle inguruk, hala nola baserriak edo eremu isolatuagoak, hobi septikoak

besterik ez dituzte hondakinak arazteko. Nafarroako Gobernuak, NILSAren bidez, herri-gune horiek saneamendu-proiektu osoagoak izan ditzaten lan egingen du. Toki horietan prozesuak aurrera egitea motela da, inbertsio handiak egin behar direlako eta proiektu bakoitza inguruko ezaugarri orografikoetara egokitu behar delako.

Ezkurrako araztegiaren xehetasunak

Ezkurrako etorkizuneko araztegiaren kasuan, zenbait kokaleku aztertu dira. Lurraren malda handiak eta zailtasun orografiko orokorrak aukera posible guztiak kontuan hartzeri behartu dute, distantzia, sarbidea, kostu ekonomikoa, segurtasun arriskuak (lurren lerradura batez ere) eta paisaia

HERRI TXIKIETAKO 11.000 BIZTANLEK HOBI SEPTIKOAK DITUZTE ARAZTEKO



Ezkurra eta Beintza-Labaiengo udal ordezkariak, NILSAko teknikariarekin.

eta ingurumen ukipenak ebaluatuz.

Lau kokaleku proiektatu dira estaziorako: bata, Azkukuko errekan gaur egun dagoen isurketagunearen ondoan; bestea, 86 metrora; hirugarrena, urrunago, 217 metrora, eta landarez babestuta; eta, laugarrena, errekan ezkerreko isuri beharko lukeena. Azkenik, hirugarren aukera hautatu da, paisaian hobeki integratzen delako, hirigunearekiko distantzia handiagoa delako eta sarbide erraza duelako, %13ko maldarekin.

Proiektuaren arabera, 1997an berriro ziren udal sareak euri eta ur beltzarako hodi bereiziek kolektore batera lotuko dira, emaria etorkizuneko instalaziora eramateko. Eremuko topografiak aukera ematen duenez, bakterio-ohantzearen araztegi bat jarriko da ura balantzin baten bidez banatzeko, eta ez da instalazio elektrikorik beharko ura estaziora bultzatzeko.

Gainera, atxikitze bukaerako hezegune bat jarriko dute, segurtasun elementu gisa jardungo duena. Azkenik, ura errekarara itzuliko da araztutakoan. Aurreikusitako inbertsioa 415.622 eurokoa da (BEZ kanpo), eta NILSAk uraren ordainagiriaren bidez kudeatzen duen saneamendu kanonarekin ordainduko da.

Instalazioak ez du elementu elektromekanikorik, beraz, energia gutxi kontsumituko du eta matxurak gertatzeko aukera asko murrizten da. Sozietate publikoko langileek gainbegiratu dute egoera ona, eta haiek arduratuko dira mantentze-lanez, metatutako lohi- eta flotatzaile-mailak zuzenak direla egiaztatzeaz eta ohiko funtzionamenduaz kanpoko isurketarik ez dela egin egiaztatzeaz. Gainera, sei hilean behin uraren laginak hartuko dira, uraren kalitatea egiaztatzeko eta dago-kion isurketa-baimena betetzeko.



Elizagibela Promociones S.L.

ETXEBIZITZA PROMOZIOA
18 ETXEBIZITZA 8 LOKAL

www.elizagibelapromociones.com
elizagibelapromociones@gmail.com

T. 643 466 998



• 2, 3 eta 4 logeletako etxebizitzak trasteroarekin Doneztebeko Elizagibela kalean.

• Lokal komertzialak.



Elikadura ikastaroa Itziar Anduezak emanen du.

Elikadura ikastaroa apirilean emanen dute Donezteben

Interesa duen jendea izanez gero, bertze herrietan ere eman daitekeela jakinarazi dute

PABLO IRASTORTZA

Pandemia hasi zenetik urtebete joan den honetan, horren ondorioak sumatu dituztenentzat edota ikasiz euren burua zaindu nahi dutenentzat tailerrak antolatzen ari da elkarteak. Maiz aipatu izan den elikadura eta gorputzaren zain-tza izanen da apirilean solasgai hartuko dutena. Elikaduraz gehiago jakin nahi duten elkarteko kideek zortzi orduko ikastaroa izanen dute aukeran.

Ortzegun arratsaldetan

Saioak apirilaren 8an hasiko dituzte eta apirilako ortzegun guztietara luzatuko dira (15a, 22a eta 29a). Bi orduz, 16:00etatik 18:00etara, Doneztebeko Arkupeaken egoitzan bilduko dira (Santa Luzia karrika, 5, 2. solairuan).

Hamar laguneko taldeak egingen dituzte eta Berako Itziar Andueza aditua izanen da hiz-

lari. Parte hartu nahi dutenek elkartera deitu, jakinarazi eta 15 euro ordaindu beharko dituzte.

Bertze herrietan ere eman daiteke

Elkartek jakinarazi duenez, ikastaro hau eskualdeko bertze herrietan ere (Leitzan, Elizondon...) antola daiteke. Hala ere, emailea bertaratu ahal izateko, hamar laguneko edo gehiagok izena eman beharko dute.

Gaiak

Anduezak hainbat gai landuko ditu. Osasun orokorrari buruzko gaien artean, hiperkolesterola, diabetea, gainkarga, hipertentsioa... izanen ditu solasgai. Kirol alorrean, bertzeak bertze, muskuluak nola zaindu eta kalanbreak nola uxatu azalduko du. Osteoporosiaz, hau da, hezurren osasunaz, kalcioz, D bitaminaz, kirolaz... ere ariko da. Eta, azkenik, elikagaiak erosterakoan kontuan hartu beharrekoak (zer mota-tako janariak eta nongoak erosi, etiketak irakurri...) erakutsiko du.

**ELIKAGAIEN
ETIKETAK
IRAKURTZEN
IKASIKO DUTE**

Tailla ikastaroa astelehen eta asteazkenetan Donezteben

Orain hilabete azaldu bezala, Doneztebeko egur-zizelketa edo tailla ikastaroa martxan da dagoeneko. Aukera bat baino gehiago aztertu ondotik, Elizagibela karrikako (zurrezko Galbaraialde zubiaren bestaldean) etxabe batean irakatsiko da.

Nahiz eta hasiera batean asteazkenetan bakarrik izanen zela azaldu, astean bi egunez izanen da. Ikasle saila izanik, bi talde egitea erabaki dute-lako: batzuk astelehenetan eta bertzeak asteazkenetan biltzen hasiak dira 16:00etatik 18:00etara.



Udazkenean horrelako ateraldiak egin ahal izatea dute amets elkarteko kideek.

Udazkenerako bidaiak eta txangoak antolatzeko itxaropena du elkarteak

PABLO IRASTORTZA

Hamairu hilabete baino gehiago joan dira elkarteko kideek azken txangoa egin zutenetik. 2020ko martxoaren 10ean izan zen eta 126 bazkidek gozatu zuten Xabierreko mezaz, bazkariak eta dantzaldiaz.

Orduko hartan, nahiz eta entzun bazebilela, nahiko urrun sumatzen genuen birusa. Ez genuen uste urtebete pasatxo beranduago (eta auskalo noiz arte) gure ametsetako bidaiak eta mugimendu guztiak bertan behera utzi beharko zirenik.

Berri itxaropentsuak

Hala ere, azken berri edo zurrumuruak itxaropenak berpizteko modukoak dira. Estatuko Imsero erakundetik berriki jasotako berrietan irakurri dugunez, penintsula eta irltako ohiko egonaldiak,

udazkenean martxan paratze-ko asmoa dute. Hori bai, asmo pozgarri hori Covid-19ren aurkako txertoaren menpe legoke.

Ateraldiak antolatzeko lanean

Aipaturiko txertatze kanpainan zerbait aldatuz gero ustea ustel gerta daitekeela jakin arren, ahal den neurrian, bidaiak eta irteerak martxan paratzea da Arkupeak elkarteko batzordearen asmoa.

Beharrezkoa da aipatzea, gai berri eta desiragarriak izanik, nahiko erraz hasten garela hango eta hemengo aldabak jotzen. Horren aitzinean, elkarteak tenorez abisatuko duela aurreratu du: «lasai bazkide, ez urduritu, elkarteak lerro hauen bidez eta 618 56 78 37 Whatsapparen bidez antolatzen den guztiaren berri emanen du eta».

Hondakin organikoak gaika biltzeko sistema paratuko dute Donezteben

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateak hondakinen kudeaketa eragikorragoa egiteko eta Europako legedia eta helburuak bete ahal izateko pausoak eman nahi ditu.

Indormazio bilerak

Horretarako, Donezteben hondakin organikoak gaika biltzeko aukera eman nahi dute. Sistema hori martxan jartzeko, aitzinetik herritarrentzat informazio bilerak antolatu dituzte. Martxoaren 9tik 18ra Doneztebeko biz-

tanleekin bilerak egin dituzte. Biler horietan sistema berri horri buruzko informazioa ez ezik, Leitzan martxan jarri den Garbiguneari buruzko azalpenak ere eman dituzte.

Herritarren parte-hartzea arrakastarako gakoa

Mankomunitatea sinetsita dago «harrera ona izanen duela, onura nabarmenak dituelako». Hala ere, herritarren parte-hartzea ezinbertzekoa izanen dela gaineratu nahi izan dute.



Hamaika telebista Malerrekan

Hamaika telebistako *Nafar Away* saioak Malerreka bisitatu du: Zubietan, Imatxo talogilearekin egon dira; Urrotzen, Ibai abeltzainarekin; Donezteben Jokin eta Ionen eskutik laxoa zer den ikusi ahal izan ditu; Donamarian konbentura joan dira; eta azkenik Pleura taldea aditzeko aukera izan dute.



Unai Apezetxea –ezkerretik hasita hirugarrena– Calamochan (Teruel).

Nafarroako auto-kros txapelketarako prestatzen ari da Unai Apezetxea

TTIPI-TTAPA

Aurten «ahalik eta auto-kros txapelketa gehien» egin nahi ditu Unai Apezetxea doneztebarrak. Nafarroako txapelketa oraindik ez denez hasi, Calamochan (Teruel) izan zen martxo hasieran. Guztira seik parte hartu zuten eta bere kategorian hirugarren postua

lortu zuen. Lehenbiziko lasterketa izanik, emaitzarekin «kontent» dago Apezetxea eta «esperientzia polita» izan zela dio. Koronabirusarengatik, antolatzaileek hiru lagun eramatea bakarrik baimentzen zuten eta berak Unai Juanena, Jon Jaen eta Eneko Santesteban eraman zituen.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net ☎ 943 616 587
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

«Suteen kontra mugaz gaindiko politikak behar dira»

Bat egin dute horretan Bera, Lesaka, Sara, Azkaine, Urruña, Biriatu eta Ziburuko hautetsiek Beran egindako agerraldian

AITOR AROTZENA | BERA

Dagoeneko hilabetea joan da Bidasoaren bi aldetara sute larria izan zenetik eta Bera, Lesaka, Azkaine, Urruña, Biriatu, Ziburu eta Sarako alkatea eta zinegotziek agerraldia egin zuten martxoaren 13an Berako Herriko Etxean. Egun horretan manifestazioa deitua zuten, baina Espainiako Gobernuko ordezkariak ezarritako gehieneko edukiera 400 lagunera mugatu zuten eta hori betetzea ezinezkoa izanen zelakoan, bertan behera utzi behar izan zuten deialdi hori. Aitor Elexpuru Berako alkatea, Ladis Satrustegi Lesakako alkatea, Battit Laborde Sarako alkatea, Philippe Aramendi Urruñako alkatea, Eneko Aldana Ziburuko alkatea, Solange Demarcq-Egiguren Biriatuko alkatea eta Thierry Talazac Azkaingo zinegotzia izan ziren agerraldian, bertze zenbait hautetsi eta Joseba Erremundegi, Euskal Elkargoko mugaz gaindiko lankidetzarako delegatua erekin batera.

Hautetsiek euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez aipatu zuten, «ia 2.000 hektarea erre zituen suak otsailaren 20 eta 21ean. 2.000 futbol zelai bezain bertzeko lur eremua. Kalteak handiak izan dira, bai ekologikoak, baita ekonomikoak ere. Herri lurak izan dira kaltetuak, baso eta larreak, baita lur pribatuak ere. Hainbat abeltzain ere kaltetuak izan dira. Suteak gure herriak *ukitu* eta *hunkitu* ditu eta herri gisa elkartu nahi izan dugu, aldarrikapen batzuen inguruan».

«Hau sortu duenak nolabait ordaindu beharko du»

Alde batetik erantzukizunak eskatu nahi izan zituzten. Izan ere «sutea nahita piztua eta eragina izan zela pentsatzen dugu, Baionako prokuradoreak, Foruzaingoak eta Ertzaintzak ere hala adierazi dute. Uste dugu mina eta kaltea eragiteko piztu zela sua. Eta ez diogu bertze interes ezkurturik ikusten. Horrela azpimarratu nahiko genuke. Hau sortu duenak edo dutenek nolabait ordaindu egin beharko dute».

«Ordu batzuetan bizitzak salbatzeaz ere solastatu ginen, pentsa!»

Nola ez, egun horietan sua itzaltzen ibili ziren suhiltzaileak eskertu nahi izan zituzten: «suhiltzaile profesionalak, baita gure suhiltzaile boluntarioak ere. Gureak eta bertze herrietatik etorri zirenak. Babes zibila ere eskertu nahi dugu larrialdietan egiten duten lanagatik. Pentsatzen dugu larrialdietan babesten eta zaintzen gaituzten erakunde hauek, diru publikoarekin laguntzen jarraitu beharra dagoela, eta beraien eskaerak kontutan izan beharko genituzkeela», aipatu dute.

Mendirra laguntzera joan ziren norbanakoak, eta nola ez, isil-isilik janaria eta ura banatzen ibili ziren herritar guztiak ere gogoratu zituzten. «Larrialdia zein tamainakoa izan zen ezin dugu ahantzi. Bizitzak salbatzeaz solastatu ginen ordu batzuetan, pentsa. Suaren kontrola galdu zen ordu batzuetan. Sutearen on-



Lehen lerroan alkateak: Battit Laborde (Sara), Eneko Aldana (Ziburu), Solange Demarcq-Egiguren Aramendi (Urruña) eta Ladis Satrustegi (Lesaka). Gibelean, bertze hautetsiak eta Euskal Elkar-

«BIZITZAK SALBATZEAZ ERE ARITU GINEN»

AITOR ELEXPURU, BERAKO ALKATEA

dorengo egunetan izan den elkartasun uholdea izugarria izan da. Elkartasun hori guztia ere eskertu nahi dugu, bertze behin ere, eredugarria izan da herritarren erantzuna».

«Gure herriak eta natur ondarea babestu nahi ditugu»

Gure herriak eta natur ondarea babestu nahi dituztela ere azpimarratu zuten: «Ingurugiro eder, aberats eta pribilegiatu batean bizi gara eta bizitzen jarraitu nahiko genuke. Badakigu azken hamarkadetan gure herrietako egoera sozio ekonomikoa aldatzen joan dela. Baina gure ingurua eta paisaia hain eder mantentzeko, badakigu zeinen garrantzitsuak diren jarduerak batzuk, eta horiek sustatzen eta babesten jarraitu beharko da.

«MENDI BAT ETA BAKARRA DUGU, GURE MENDIA»

PH. ARAMENDI, URRUÑAKO AUZAPEZA

Laborariek ari gara, abeltzainez eta abar.... Mendiek eta herri lurrek hainbat erabiltzaile dituzte: laborariak, abeltzainak, kirolariak, ehiztariak, egur ustiatzaileak eta abar». Dezentzako tokia badela uste dute, «eta denen partetik jarri beharko dugu mendia era bilera jasangarri, orekatu eta errespetuzko bat bermatzeko. Herri lurren kudeaketa nola hobetu aztertu beharko da, erabiltzaile guztien adostasunarekin, inor kanpoan edo *desplazatua* gelditu ez dadin».

Kalteei aurre egiteko garaia

Orain, kalteei aurre egiteko garaia da. Nafarroako kasuan, suteak hondatutako zuhaitzen basoberritze lanak osorik bere gain hartuko ditu Nafarroako Gobernuak. Abeltzaintza-az-



uraren (Biriatu), Aitor Elexpuru (Bera), Philippe
Elkargoko ordezkariak. AITOR AROTZENA

«MUGAZ GAINDI LANDU BEHAR DUGU GAI HAU»

J. ERREMUDEGI, EUSKAL ELKARGOAK

piegituretarako laguntza-lerro bat aurreikusi da eta animaliak galtzeak eragindako kalteak konpentsatzeko modua ere aztertzen ari dira. Ingurumen Zuzendaritza Nagusia, berriz, ukitutako eremua lehengoratzeko lanez arduratuko da, baina udaberrira arte esperatu beharko da landaredia birsortzeko gaitasuna egiaztatzeko, eta, baloratu ondotik, beharrezko lehengoratzeko proiektuak egingen dira. Oraingoz, lehenengo landaketa lanak hasiko dira, eta landaketa gazteenak egin diren eta lehengoratzeko zaila izan den eremuetan landatuko dira.

Lapurdin, aldiz, egoera ez dela hain baikorra gogoratu zuen Philippe Aramendi, Urruñako auzapezak: «Desmasia handiak ditugu, baina

Iparraldean herriek asumitu beharko dituzte bere gain, beraz, ez da guti. Ainitzentzat zinez pisu handia izanen da. Batzuek aseguruak dituzte, baina denek ez. Herritar guztiek pairatuko dituzte kostu horiek».

«Mugaz gaindiko politika bateratuak aitzinera eraman behar ditugu»

Alkateek ziotenez, «hainbat administrazioen menpe dago zapaltzen dugun Euskal Herriko gure lur eremu hau, alde batetik bi estatuak, eta mugaz alde honetara bi erkidego. Paradoxikoki suak ez du mugaz ulertzen, eta harat-honat ibili da aitzinean zuen guztia suntsitzen. Horregatik beharrezko ikusten dugu mugaz gaindiko mendi eta herri lurren politika bateratuak aitzinera eramatea. Badugu elkarrengandik zer ikasi, eta elkarrekin norabide berdinean lan egitea onuragarria izanen da denontzat. Modu demokratiko batean egin nahiko genuke bide hau. Mendiaren erabiltzaile guztiak adituz, eta akordio eta adostasunetara iritsiz. Hemen gauden herrietako auzapezak horren alde egiteko konpromisoa hartzen dugu». Aramendik erran zuenez, «ez dira bi mendi edo hiru mendi, mendi bat eta bakarra dugu, gure mendia eta hemendik goiti elkarrekin beharko dugu mendi hori kudeatu».

Joseba Erremundegi, Euskal Elkargoko mugaz gaindiko lankidetzarako delegatuaren erranetan ere, «gai hau mugaz gaindi elkarrekin aipatu eta landu behar dugu, bai prebentzio arloan, baita alertaprotokoloei dagokienez ere». Euskal Elkargokoak bat egiten du horretan herriekin eta «horixe bera galdegin genuen martxoaren 10ean izan genuen Atlantiko eta Pirinioz Gaiandiko Konferentziaren (CAT) bilkuran. Euskal Elkargokoak herrien ondoan parte hartuko du hori sustatzen eta harremanak errazten».

TTIPI-TTAPAREN ETA ERRAN.EUSEN LAGUNA IZAN NAHI DUT!

- 1 Bertako informazioa eduki nahi dudalako.
- 2 Euskaraz bizitzen lagunduko didalako.
- 3 Gure lurraldean hedabide euskaldunak behar ditugula uste dudalako.
- 4 Tratu zuzen eta hurbilekoa eskaintzen didalako.
- 5 Nire aportazio ttiki batekin TTIPI-TTAPAREN eta ERRAN.EUSEN iraupena segurtatzen dudalako.



erran.eus/bazkidetu
T. 948 63 54 58



**Ttipi Txartelarekin
abantaila handiak;
deskontuak eta zozketak**

MEKNARI esker nire donazioak
%80ko desgrabazioa duelako
Errentaren Aitorpenean



ttipi-ttapa

erran.eus

Apirilean Leitzan hasiko da azoka ibiltarien denboraldia

Bederatzi azoka ibiltari eginen dituzte aurten eta apirilaren 25ean Leitzan eginen da aurrenekoa

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean mendialdean egin zituzten sei azoka ibiltari-iek izandako arrakasta errepikatze gogoz, aurten ere inguruko baserrietan eta artisauen tailerretan ekoiztako produktuak ezagutu eta kontsumitzeko aukera izanen dela iragarri dute. Bederatzi azoka ibiltari eginen dituzte, eta horietan lehenbizikoa herrian izanen da: apirilean.

Cederna Garalur Elkartetik jakinarazi dutenez, hauek dira azoka ibiltarien datak: apirilaren 25ean Leitzan; maiatzaren 9an Araitzen; maiatzaren 23an Aldatzen (Larraun); ekainaren 20an Goizuetan; uztailaren 4an Latasan (Imotz); uztailaren 25ean Basaburuan; abuztuaren 14an Areson; irailaren 18an Atetzen eta azaroaren 7an Lekunberrin.

Agenda kontu gehiago

Apirileko azoka baino lehen bestelako hitzorduak izanen dira, tartean, erakusketak. Martxoaren 29tik 31ra Erleta eskolako Haur Hezkuntzako bost urteko ikasleak izanen dira protagonista, gelan landutako proiektuak jendaurrera aterako baitituzte. Gela batekoek margolarien lanetan oinarritutako erakusketa jarriko dute eta beste gelakoek dinosauroen inguruko lanak. Egun horietan goizez eskolako ikasleentzat izanen dira ikusgai, eta 18:30etik 20:00etara herritar guztientzat.

Apirilaren 1etik 11ra, bestalde, Jose Antonio Bergararen *Arimaren arrastoak* pintura erakusketa jarriko dute Herri Aretoan, astegunez 18:30etik 20:00etara eta larunbat eta igandetan 12:00etatik 14:00etara. Sarrera librekoa izanen da.



E. IRAOLA

Kaxkabeltzako kideen azoka

Arropak, oinetakoak, osagarriak, gutuziak... Denetarik ikusi eta erosteko aukera izan zen martxoaren 13an Kaxkabeltzako egindako stock azokan. Horrez gain, martxoaren 30era arte Kaxkabeltzako poltsarekin erosketak egiten dituztenen artean, 30 euroko hamar erosketak txartel zozketatuko dituzte.

Landa Turismoko hiriburu izateko hautagaien artean aurten ere

TTIPI-TTAPA

Estatuko Landa Turismoko hiriburu izateko lehiaketa eginen du aurten ere www.escapadarural.com webguneak. Iaz Leitzan izan zen Nafarroako ordezkaria eta seigarren gelditu zen. Aurten ere hautagaien artean izanen da, Nafarroako

bertze lau herrirekin batera. Landa turismoko enpresariak dira lehiaketara hautagaitzak aurkezten dituztenak. Ondotik, bidaiariek apirilaren 14tik maiatzaren 14ra bozkatzeko aukera izanen dute eta maiatzaren 18an irabazlea zein den jakinaraziko dute.



LEITZAKO UDALA

Mimukai bere bidea egiten ari da...

Mimukai proiektuaren parte-hartze prozesuak aurrera jarraitzen du. Dagoeneko lau saio egin dira, horietako bi Leitzan. Aste honetan egitekoa zen bosgarrena Lekunberrin eta hurrengoan apirilaren 15ean Leitzan, 22an Goizuetan eta maiatzaren 6an Leitzan izanen dira.



UTZITAKOIA

Heliazalera erabiltzeko prest dago

Osasun etxetik, anbulantzia eta suhiltzaileen parketik hurbilago dagoen heliazalera erabilgarri dago dagoeneko. Lanek 21.414,56 euroko aurrekontua zuten eta Nafarroako Gobernuak osorik ordaindu du. Udalaren arabera, «larrialdi kasuetan erantzun eraginkorragoa eta azkarragoa» ematea ahalbidetuko du.

'... eta plaza larre bihurtu zen' dokumentala salgai

Pandemia indarrean sartu zenetik urtebetera, orduko konfinamenduan bildutako memoria kolektiboarekin osatu zuten ... *eta plaza larre bihurtu zen* dokumentala DVDan salgai jarri dute udalak. Astiz eta Maimur liburu-dendetan eros daiteke, lau eurotan.

Marketin ikastaroa Enplegu Zerbitzuak antolatuta

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatuta, apirilaren 12tik maiatzaren 12ra 20 orduko marketin ikastaroa egingen dute udaletxean. Saioak asteleheneretan eta asteazkenetan ematen dituzte, 15:00etatik 17:00etara. Izen-ematea Nafar Lansareren web orrian.



LAÑAIDE/MAITE PERURENA

Kaleak aldarrikapenen lekuko

Geroa ereiten murala, irakurketa feminista, ikuskizunak, irratsaio-poteo feminista, *Dena aldatuz sistema arrakalatu* lelopean elkarretaratzea, dokumentala, yoga erlaxazio saioa... Hainbat hitzordu izan dira martxoaren 8aren bueltan, eta irudi eta aldarrikapen askoren lekuko izan da ziklo feminista.

Aldarrikapena eta festa Emakumeen Egunean

Plaza Zaharretik abiatuta, musikaz alaitutako kalejira morea egin zuten martxoaren 8an herritarrek

TTIPI-TTAPA

Akordeoi eta trikiti doinuak lagun, banderola moreak eskuetan, festa eta aldarrikapenak bat egin zuten martxoaren 8an, Emakumeen Egunean. Plaza Zaharrean hasi eta bukatu zuten itzulia eta bertan emakumeen zuhaitza osatu zuten

munduko emakume ospetsuen eta herriko emakumeen argazkiekin: guzti-guztiak garrantzitsuak, guztiak noizbait emakumeen bizitzan sustrai, fruitu eta enbor... Emakumeen Egunaren harira, ipuin-kontaketa eta filma ere izan ziren ondoko egunetan.



Kolore moreak hartu zituen herriko kaleak Emakumeen Egunean. ENERITZ IRAOLA

José A. Arzuaga abeltzaina

Zuzeneko haragi salmenta

10 kg-ko lotea 120 €-tan

Banaketa bakoitzean (gutxi gorabehera):

- 1.400 gr. txuleta (3-4 txuleta)
- 2.600 gr. 1. mailako xerrak (3-4 pakete)
- 220 gr. azpizun (pakete 1)
- 640 gr. biribilki (2-3 pakete)
- 1.200 gr. saiheski (2-3 pakete)
- 2.300 gr. haragi xehatu (3-4 pakete)
- 200 gr. eltzekari (2-3 pakete)
- 1.900 gr. gisatzeko (3-4 pakete)



Eskaeretarako,
deitu edo mezu bat bidali
608 670 697 📞

ORBELA
SENDERSMOA ATERPETA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com


744 484 361
ttipi-ttapa

'Zaintza pandemia garaian' erakusketa ikusgai asteburuan

Ostiraletik igandera elkarteko arkupean ikusgai egonen dira 'Zaintza pandemia garaian' lehiaketara aurkeztutako lanak

TTIPI-TTAPA

Asteburu honetan Aranok hartuko du *Zaintza pandemia garaian* erakusketaren lekukoa, eta hala, ostiraletik igandera, martxoaren 26tik 28ra, argazki lehiaketako lanak elkarteko arkupean ikusteko aukera izanen da, baita Goizuetako eskolako hiru eta lau urteko ikasleek egindako marrazkiak ere, gaiarekin lotutako ipuin eta ariketak landu baitzituzten.

Guztira 17 argazki bildu zituzten Bhutan proiektuaren barne, prebentzio programak eta berdintasun zerbitzuak joan den urte bukaeran Aranok eta Goizuetan antolatu zuten *Zaintza pandemia garaian* izeneko argazki lehiaketan. Horien artean, Itxaso Lujanbioren *Etorkezuna orain da* argazkiak irabazi zuen eta sari parte-hartzailea, berriz, Garbiñe

Etxegiaren *Zeruaren koloreak* argazkiarentzat izan zen.

Emakumeen Egunari begira

Emakumeen Nazioarteko Egunaren atarian, bi hitzordu egin zituzten herritarrek. Martxoaren 6an *Emakumeak erne* dokumentala eman zuten Maisuenean. Hamar bat lagun elkartu ziren eta Kontxi Klaber zinegotziak TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, «bildutakoak oso gustura» egon ziren. Ondotik, osasun egoera tarteko afaltzeko modurik izan ez zutenek, tortilla pintxoak janez borobildu zuten hitzordua.

Biharamunean, martxoaren 7an, Jaione Urtaşunen *Pontxarekin ipuin berdina* ipuin-kontaktarekin gozatzeko aukera izan zuten Maisuenean bildu ziren haur eta gurasoek eta halaxe egin zuten.



Dokumentalaren emanaldian eta ipuin kontaketa ateratako argazkiak. KONTXI KLABER



NAFARROAKO GOBERNUA

Lourdes Uitz gogoan

Nafarroako Gobernuak suhiltzaileen zaindariaren eguneko ekitaldian egin zuen martxoaren 8an eta iaz erretiratutako suhiltzaileak omentzeaz gain, 2020an hildako Lourdes Uitz herriko suhiltzailea izan zuten gogoan. Senideen izenean Fatima ahizpak eta Mikel ilobak hartu zituzten oroigarria eta lore-sorta.

Apezetxea nagusi Nafarroako eskukopan binaka

Nafarroako lehen mailan, binakako eskukopako pilota txapelketako finala irabazi du Antton Apezetxeak, Irurtzungo Nazabalekin bikotea osatuz. Finalean Ultzamako Larunbe eta Oskozi 22-9 irabazi zieten.



UMORE ONA PILOTA ELKARTEA



FELIX LOIARTE

Martxoaren 8an kolore morea nagusi

Haurtzako zinema, lilatoia, ipuin kontaketa musikatua, elkarretaratzeta, hip-hop taldearen dantza saioa, Ainhoa Zabaletaren zuzeneko saioa, *Zaintza pandemia garaian* argazki erakusketa... Kolore morearen indarra agerian utziz, denetariko ekitaldiak izan dira Emakumeen Egunaren harira.

«Guardiako langileen baldintzak ez dira beste tokietan bezalakoak»

JOSE JABIER ETXEBERRIA SALABERRIA GOIZUETAKO MEDIKUA

Goizuetako mediku-laguntzaile bat herritik joan daitekeela ohartarazi du Nafarroako Medikuen Sindikatuak. Horren harira, «guardiako langileen arazoa aspaldikoa» dela adierazi du Etxeberriak

G. PIKABEA

«Guardiako medikuen eta erizainen arazoa aspaldikoa da Goizuetan». Hori argi utzi nahi izan du Jose Jabier Etxeberria Salaberria herriko medikuak. Prentsan Nafarroako Medikuen Sindikatuak egindako oharraren harira galdetu diogunean egin ditu adierazpen horiek. Goizuetako mediku-laguntzaile bat beste toki batera joan daitekeela ohartarazi du sindikatuak, lan baldintzak aldatzeko eskatu arren, ez duelako erantzunik jaso eta beste toki batean hobeak eskaini dizkiotelako. Etxeberriak ezaguna du Goizuetako osasun etxeko martxa, 1993tik herriko medikua eta 2009az geroztik bertako mediku titularra baita. Aitortu digunez, «herrikoa izanda eta herrian bizita, ez ditut beste lankideek dituzten gabeziak sumatzen» baina badaki zein den egoera eta bere hitzetan, «guardiako langileen baldintzak ez dira beste tokietan bezalakoak».

Lanordu asko

Eremu berezia izendatua da Goizuetan, eta hori horrela, «osasun etxean 24 orduko guardiak egiten dituzte eta guardiako mediku eta erizainek lokalizatuak egon behar dute». Eskakizun hori ez da arazo berretzat: goizeko txandan aritzeaz gain, astean behin guardia egiten du baina «Goizuetan bizi naizenez lokalizatua nago».

Bestelakoa da arratsaldeko guardiak egitera kanpotik etor-



Jose Jabier Etxeberriari urtebete gelditzen zaio erretiroa hartzeko.

tzen diren osasun profesionalen egoera: «egunero-egunero zazpi orduko lanorduak egiten dituzte, eta gainerako hamar orduak guardia bezala dira. Ez dira lanorduak, baina lokalizatuak egon behar dute, eta ondorioz, Goizuetan». Horretarako apartamentu txiki bat ere badute herrian, mediku eta erizainarentzat. Etxeberriak azaldu duenez, «lanorduetatik aparte beste hamar ordu sartu behar dituzte baina ordu horiek etxean egonen balira bezala ordaintzen dizkiete. Jendeak lanetik aparte badu bere bizia eta baldintza horietan ezinezkoa da hemen jarraitu nahi izatea».

Kontuak kontu, «aldiro mediku eta erizain berriak» dituz-

tela kontatu digu Etxeberriak, eta bere irudiko, horrek zerbitzuan eragina du: «hemen lan egiteak ingurua ezagutzea eskatzen du, pistak, baserria... Eta euskara jakiteko eskatzea asko izanen litzateke. Kanpotik aldiro profesional berriak etorrita, ez dute tokia ezagutzen eta horrek zerbitzuaren kalitatea okertu dezake».

Ez hori bakarrik. Alde batetik, «medikuak eta erizainak apartamentu tiki batean ordu asko

«ALDIRO GUARDIA-KO MEDIKU ETA ERIZAIN BERRIAK DITUGU»

egon behar dutela eta elkarren artean harreman handirik ez dutenak izan daitezkeela» aipatu du. Eta bestetik, Gipuzkoara joateko duten ohiturak sortzen duen «berezitasuna» nabarmendu du: «dena Gipuzkoara, Hernaniko eta Donostiako anbulatorio eta ospitaleetara, bideratzen dugu. Protokoloak eta prozedurak ez dira Nafarroan bezalakoak eta horretarako baliabide informatiko eskasak ditugu». Hutsune hori «Gipuzkoako osasun profesionalekin dugun harreman onari eta borondateari esker moldatzen» dutela dio.

Erretiroa hartzeko urtebete

Laster bere plaza ere hutsik geldituko da, urte bat gelditzen baitzaio erretiroa hartzeko. Pandemiaren ondorioz, azken urtean «beste era batera» lan egitea tokatu bazaio ere, «zorteko» sentitzen da «herrian orain arte sei positibo bakarrik» izan dituztelako. Alde horretatik, «ez dut lan zama gehigarririk sumatu».

Agerian utzi du «lana gustuko» duela, «lan polita» dela eta «jendearekin harreman estua» duela azpimarratu nahi izan baitu. Hala ere, hanka bat hemen eta bestea etorkizunera begira jarria du eta «bizitzako beste faseari pena handirik gabe» helduko diolakoan dago goizuetarra. Are gehiago, «erretiroa buruan, ilusioz» dago.

Hutsik geldituko den bere plazaren gaia ere mahai gainean jarri du Etxeberriak eta hori saihesteko gakoa «baldintza egokiak eta plaza finkoak eskaintzea» dela konbentzitututa dago. Eta gauza bera guardiak egiten dituzte profesionalekin: «arratsaldetan egoten diren mediku eta erizainak kontratu finkorik gabe daude, hilabetero berrituz. Bistan da segida behar duten kontratuak direla». Horregatik eskatu du «geografikoki eremu berezietan dauden herrietako egoera aztertzeko eta horren araberrako eskaintza jatorrak egiteko».

Korrikaren aldeko ekimena Elizondon larunbatean

AEK-k mezua irakurri, 'Euskal Herrian Euskaraz' abestia kantatu eta Bultza Euskaltegiak bertso rapa izanen dute

TTIPI-TTAPA

Aurten, Korrikarik izanen ez denez, «zulo hori estaltzeko» Bultza Euskaltegiak, Bultza Euskara ekimena antolatu du AEK-k. Euskal Herriko hainbat herritan Korrika akitzekoa zen momentuan bilduko dira eta ekitalditxo bat egingen dute.

'Damian Arrutiren asmazioak' solasgai ortziralean

(H)ilbeltza elkarteak antolatuta, Gorka Arreseren eskutik, *Damian Arrutiren asmazioak* lanari buruzko solasaldia izanen dute martxoaren 26an, Elizondon. Arizkunenea kultur etxean bilduko dira, arratsaldean, 18:30ean.



Gorka Arrese izanen da hizlari.

Bertzeren artean, larunbatean, martxoaren 28an, 12:00etan Elizondoko plazan dute hitzordua 12:00etan. AEK-k bere mezua irakurri ondotik, *Euskal Herrian Euskaraz* abestia kantatuko dute eta Bultza Euskaltegiak bertso-rapa izanen dute.

Iruñeko Orfeoien kontzertua larunbatean

Parrokiak eta Iruñeko Orfeoiak Baztango Udalaren laguntzaz, Iruñeko Orfeoien kontzertua izanen dute martxoaren 27an, heldu den larunbatean, Elizondon. Organo doinuak eta ahotsak Igor Ijurraren zuzendaritzapean adituko dira ilunabarrean, 19:00etatik aitzinera. Parrokiako atek 18:40an irekiko dituzte eta eserlekuak edukiera bete arte banatuko dituzte. Emanaldiaz gozatzeke ez da sarrerarik ordaindu beharko baina, koronabirusa tarteko, edukiera mugatua izanen da.

Udalak hiltegiaren kudeaketan duen jarrera «kezkgarria» dela dio Geroa Baik

Azken hilabeteetan udal hiltegiaren kudeaketaren berri izateko eta herritarren eta eragileentzako esperientziak eta kezkek jasotzeko bilerak egin ditu Geroa Baik. Euren ustez, zenbait esperientzia «larriak» izan dira: «egin ez diren kudeaketak kobratzea, hitzartutako datan ganadua ez sakrifikatzea, merkantzia erretiratzeko instalazioak ireki nahi ez izatea, pleguan adostutakoak baino tasa handiagoak kobratzea, errentarien soldata handiegia, urri amaieran hiltegia ixteko osasun funtzionario batzuen bisita...».

Geroa Baik adierazi duenez, espedientei buruzko kontsulta egin zioten Elikadura Segurtasun eta Animalien Osasun zerbitzuari eta otsailaren 16an Baztango Udaleko alkatearekin eta idazkariarekin, bai eta udalak hiltegiaren duen ordezkariarekin bildu ziren. Bilera hartan hiltegiaren egungo egoera zein den jakinarazi, eta kontrol ofizialeko zerbitzuko albatariak egindako aktak Osasun Departamentuko Idazkaritza Teknikoan aurkeztu direla erran zieten, zigor espedientearen proposamenarekin batera. Geroa Baik nabarmendu duenez, «udal hiltegiari aurkeztutako bi espediente daude eta alkatea jakinaren gainean dago».

Informazio hori guztia otsailaren 25eko udal bilkurara

eraman zuen Geroa Baik eta beharrezko galderak egin zituen momentuan udalak zigor espediente horien berri ezzutela erantzun zuten, «horren erantzule enpresa arduraduna dela eta hiltegiaren kudeaketari buruzko kexa ofizialik» ez dutela adierazi zuten. Horren aitzinean, Geroa Baik «udalak kontratua amaitu arte denbora igarotzen utzi nahi duela» uste du eta kexu mintzo da: «eta bitartean zer?».

Denbora igarotzen uztea ez da konponbidea Geroa Bairen ustez, eta Baztango Udala hiltegiaren jabea bada eta betetzen ari ez den sinatutako plegu bat badu espediente bat ireki beharko liokeelakoan dago. Horrez gain, kexa eta espedienteen aitzinean zalantza erakutsi du: «Egia al da bizilagun bakar batek ere ez diola udalari inolako kexarik helarazi? Zergatik erantzuten du udalak ez duela inolako espedienterik berririk, Elikadura Osasun Zerbitzutik zigor espediente proposamenak alkateari helarazi zaizkionla ziurtatzen den bitartean?».

Geroa Bairen iritiz, «bertze instalazioetara joateko erabakia hartu duten erabiltzaile eta bezeroen kexuen aitzinean, gertatzen ari dena argitzeko eta ikertzeko axolagabekeria» ikusita, «udalak hiltegiaren kudeaketa ontzat ematen duela» dirudi.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuk
Ferreteria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBATE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304
---	---	---

Mendekotasuna dutenei arreta emateko ikastaroak

Bata apirilaren 14an hasi eta ekainaren 2an akituko da eta bertzea hilaren 16tik maiatzaren 13ra izanen da

TTIPI-TTAPA

Mendekotasun psikikoa, fisikoa edo sensoriala dutenei arreta soziosanitarioa emateko ikastaroa izanen dute apirilaren 14an hasita Elizondon. Guztira 70 orduko ikastaroa izanen da eta ekainaren 2ra arte emanen dute, 15:30etik 21:00etara, Lanbide Eskolan. Guztira hamabortz lagunek eman ahal izanen dute izena eta langabetuek izanen dute lehentasuna.

Gizarte erakundeetan menpekotasuna dutenekin aritze-ko, arlo instituzionalean ba-

besa emateko eta esku hartzean laguntzeko bertze ikastaro bat ere izanen da apirilaren 16tik aitzinera. 100 orduko ikastaroa izanen da eta maiatzaren 13an akituko dute. Parte-hartzaileak lanbide eskolan bilduko dira 15:30etik 21:00etara. Honetan ere, gehieneko parte-hartzaile kopurua 15 lagunekoa da eta langabetuek izanen dute lehentasuna.

Ikastaro hauetako baldintzei, edukiei edota izen emateari buruzko informazio gehiago nahi duenak Nafar Lansareren webgunean du eskura.



Ausartenentzat 100 metroko pendulo bat dago Baztan Parken.

Segurtasun sistema berriekin Baztan Park eta Bertiz Park irekita daude berri

TTIPI-TTAPA

Joan den ortziraleaz geroztik, irekita daude Baztango eta Bertizaranako abentura parkeak. Baztan Abentura Parkean lau urtetik goitiko haurrentzako jarduerak daude eta, bertzeak bertze, tirolinetan ibili, eskaladako sentsazioak bizi edota pendulutik salto egiteko auke-

ra eskaintzen du. Gainera, tirolinak geldiarazteko sistema berri bat jarri dute, bezeroen segurtasuna bermatzeko. Bertiz Abentura Parkea ere lau urtetik goitikoendako prest dago, zuhaitzez zuhaitz, tirolinetan edo 60 jokoetan ibiltzeko. Jardueraz gozatzeko aitzinetik erreserba egin behar da.



Konposta fintzeko makina Loizuko zelaian (Iruritan) dago.

Udalak herritarren eskura paratu du konposta

TTIPI-TTAPA

Miren Meoki hondakinen teknikaren arabera, «zikloa ixtea da kontua, konposta aprobe-tzatzea, kalitatezko konposta egitea lurra ongarritzeko, eta, azkenean, abiapuntura itzul-tzea».

Baztanen gero eta gehiago dira konpostajea egiten dutenak eta, beraz, gero eta konpost gehiago sortzen da, «baina desoreka dago konposta egiten dutenen eta konposta erabiltzen dutenen artean». Izan ere, etxeetan bizi diren eta hondakin organikoak konpostagailu komunitarioa botatzen dituzten pertsonak, normalean, ez dute konposta behar izaten; konposta etxean egiten dutenek, berriz, sortzen dutena baino gehiago behar izaten dute, aunitzetan lurrak izaten baitituzte ongarritzeko. Horregatik, dena bildu eta behar

duenaren eskura paratu dute. Meokik dioenez, «aurten inoiz baino konpost gehiago dago, iaz ezin izan zelako banatu, denak konfinatuta geundelako». Bi konpost mota banatuko dituzte: gordinen, baratzek ongarritzeko erabiltzen dena eta bahetutako konposta, finagoa, loreetarako. Baratzek eta loreontziak ongarritzeko nahi duenak Iruritan dago, Loizuko zelaitik har dezake.

Aurten, hormigoi-makina egokitu bat ere jarri dute jendearen eskura. Nahi duenak erabil dezake konposta barre-nean sartu eta bahetzeko, finagoa izan dadin. Tresna Iruritan dago, Loizuko zelaian, eta erabiltzeko luzagarri bat eraman eta paratu bertzerik ez da egin behar.

Zalantzarik izanez gero, 667 80 85 39 telefonora deitu behar da.

Taupada ekimenaren bigarren saioa apirilaren 9an


TTIPI-TTAPA

Nafarroako Berdintasunera-ko Institutuak, Baztango Udalaren laguntzarekin, emakume gazteen ahalduntzerako antolaturiko Taupada egitasmoaren bigarren edizioa martxan da. Martxoaren 5ean izan zuten lehenbiziko hitzordua eta guztira 23 emakumezko

bildu ziren. Talde handia denez, bi taldetan banatzea aurreikusi dute (iaz ere parte hartu zutenak alde batetik eta aurten hasi direnak bertetik). Hurrengo saioa apirilaren 9an, bigarren ortziralean, izanen dute 16:00etatik 19:00etara Arizkunenea kultur etxean.



Elizondoko plazako elkarretaratzea jendetsua izan zen. ONDIKOL



Baztan Ikastolako ikasleek martxoaren 8an lanketa berezia egin zuten.

Herritarrek berdintasunaren alde bat egin dute

'Hemen baditun 14' erakusketa zabalik dago ortziralera arte 17:30etik 21:00etara

TTIPI-TTAPA

Emakumeen Nazioarteko Egurenaren bueltan, baztandarrak morez jantzi dira aurten ere. Herritar aunitzek eskualdeko elkarretaratzean parte hartu zuten martxoaren 7an. Bertze aunitzek Irurritako Gizarte Bilgunean izan zen *Matriuska* antzezanaz gozatu zuten.

Haur eta gazteek, martxoaren 8an Baztan ikastolan, eskolan zein Lekaroz institutuan lanketa berezia egin zuten, emakumezkoak erdigunean jarriz. Eta, iluntzean, jendetza bildu zen Elizondoko plazan *Gizarte inposatuaren aitzinean gora*

saretze feministago burupean. Aldarrikapen mezuek martxoaren 12ko bertso saioan izan zuten segida, Irurritako Gizarte Bilgunean Alazne Untxalo, Irati Majuelo eta Saioa Alkaiza bertsolarien hitz eta doinuen artean.

Lilatoian ama-alabak buru

Bien bitartean, martxoaren 5etik 8ra bitarte 5.703 emakumezkoak egin zuten Lilato bertualean hainbat baztandarrak parte hartu zuten. Ipar-martxa modalitatean parte hartu zuten 135 pertaideen artean eskualdeko bi lagun



Lilatoian parte hartu zuen baztandar lagun talde bat.

nabarmendu ziren, Begoña Arizmendi eta Ainara Unanua ama-alabak. Bi horiek, 60 urtetik goitiko kategorian eta seniorretan, hurrenez hurren, bizkorrenak izan ziren.

'Hemen baditun 14' erakusketa

Ekintza horiek ez ezik, erakusketa ere izan dute martxoaren 8a hornitzeko. Bertan, Perpetua Saraguetak, Maritxu Biscarretek, Feli Setoainek, Mikaela Labaienek, Petra Az-

pirozek, Paulina Urkiolak, Luzia Goñik, Mikela Gastesik, Ceferina Fontellasek, Ana Maria Etxaidek, Mirentxu Loiarlek, Xole Erbitik, Pakita Zabaletak eta Sagrario Alemanek eskara sustatzeko egindako lana bisitatu dute. Oraindik ikusgai dago Elizondoko Arizkunenean, lehenbiziko solairuan. Hilaren 26a, ortziralera, izanen da ikusi ahal izateko hondarreko eguna eta arratsalde, 17:30etik 21:00etara, atea irekita egonen dira nahi duen ororentzat.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN S.L.
VALLE DE CAJASTERIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Ikastolaren argazki erakusketa apirilean

Apirilaren 10etik 25era bitarte ikusi ahal izanen da Arizkunenea kultur etxean

TTIPI-TTAPA

Baztan Ikastolako guraso elkarteak antolatuta, apirilaren 10etik 25era argazki erakusketa ikusteko aukera izanen da Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Astelehenetik ortziralerara 17:00etatik 20:00etara eta asteburuetan goizez eta arratsaldez irekiko dute (11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara). Erakusketan ikastolaren 50 urteak ikusi ahalko dira: ikasleak, irakasleak, urte hauetan guztietan egindako ekintzak... Bisitariak Baztan Ikastolaren historia ezagutze-

ko eta bizipenak oroitzeko aukera izanen dute.

50. urteurrena

Aurtengoa urte berezia izaten ari da Baztan Ikastolarentzat. Mende Erdiko ibilbidea oroitzeko hainbat jarduera egin dituzte eta aitzinera begira bertze batzuk egiteko asmoa ere badute. Tartean, abenduan grabatutako dokumentala aurkezteke dute eta orain DVD/Disko grabatzen ari dira. Dena den, aitzineratu dutenez, «momentuko egoerak erranen du hauek egitea posible den».



Elizondoko plazatik abiatuko dira eta herrian barna ibiliko dira. ARTXIBOKOA

Bizikleta martxa ortziralearan Elizondoko plazatik

TTIPI-TTAPA

Hilabete batzuetako geldialdiaren ondotik, bizikleta-mugikortasuna bultzatzea helburu duen Izterpeko Matxinada egitasmoa antolatu dute.

Martxoaren 26an, ortziralearan, 19:00etan, dute hitzordua. Bizikleta martxa honetan parte hartzen dutenek Eli-

zondoko plazatik abiatuta, herrian barna «sasoi eta adin guztitara egokitutako itzulua» egingen dute eta ibilbide hori girotzeko soinu-orga izanen dute lagun.

Antolatzaileek, lerro hauen bidez, martxarekin bat egin nahi duten guztiei gonbidapena luzatu nahi izan diete.



BAZTAN IKASTOLA

Bailegi inguruan zuhaitzak landatzen

Baztan Ikastolako ikasle eta gurasoek Zuhaitzaren Eguna ospatu zuten otsail bukaeran. Mendiak, arbolak, animaliak, bordak... erre diren honetan, natura zaintzearen eta arduraz jokatzearen garrantzia ageriko egitearekin batera, Bailegi aldean zuhaitzak landatu zituzten.

Arizkun Rock ekainaren 19an izanen da

Arizkun Rock elkarteak aurtengo edizioa ekainaren 19an izanen dela iragarri du. «Ezohiko moduan» egingen den «bertze mota bateko jaialdia izanen den arren, antolatzaileak «gogoz eta ilusioz beterik» daude eta «goxotasunez eta mimoz» prestatuko dute.

Xubelet eta Xamanaten kontzertua apirilean

Baztango Turismo Zerbitzuak antolatuta, Xabier Xubelet eta Xamanatek kontzertua emanen dute apirilaren 3an, lehenbiziko larunbatean. Arizkungo Txuputo karrikan, 6. zenbakian (komentuko zelaigunean), izanen da emanaldia, 12:00etan hasita.



BAZTANDARRA TXIRRINDULARI ELKARTEA

Txirrindulariek denboraldia hasi dute

Martxo hasieran lehiaketetan hasi ziren Baztandarra Txirrindulari Elkartearen kirolariak. Gaztetxoek lehenbiziko lasterketa Lizarran izan zuten martxoko lehenbiziko asteburuan; helduak, berriz, Kaparrosan izan ziren. Denboraldiari hasiera «gogotsu eta ilusioz» eman diote batzuek zein bertzeek.

«Gure asmo bakarra ongi pasatzea eta ongi pasaraztea da»

KEPA LAZARO LARRAZABAL THE DRUNKEN BARRELS TALDEKO ABESLARIA

Irlandar musika, bertsioak, lantzen ditu The Drunken Barrels musika talde baztandarrak. «Adin guztietarako egokia den besta giroko musikak» entzuleen arreta erakarri du emanaldi guztietan

TTIPI-TTAPA

Orain hogeita hiru urte sorterrria utzi eta Elizondora jo zuen Kepa Lazaro Larrazabalek (Galdakao, 1966). Egun, bertan du habia eta «arras gustura» bizi da Baztanen. Herriarekin eta herritarrekin duen loturatik, musikarekiko duen zaletasunari segida emateko modua harrapatuta, The Drunken Barrels taldean ari da egun. 2018ko azaroaz geroztik, irlandar estiloko musika lantzen du bertze sei baztandarrekin batera. Musika joz gozatzea eta gozaraztea du helburu.

The Drunken Barrels taldeko abeslaria zara... Lehendik ere bertze talderen batean ibilia zara?

Galdakaon gaita, panderoa, gitarra... jotzen nuen eta ia nahi gabe talde bat egiteko aukera sortu zen. Lagun baten ostatuan besta egiteko elkartu ginen eta hor mexikar kantu batzuk prestatu eta jotzea proposatu ziguten. Halaxe hasi ginen eta azkenean benetako talde bihurtu ginen. Iguana y Los Jumiles taldearekin hamar urtez bestaz besta ibili nintzen. Hemen [Baztanen] ere izan nintzen hainbatetan.

2018an sortu zenuten talde berria... Nola eman zenuten pausoa?

Kasu honetan ere ingurukoek animatuta hasi ginen. Lagun batek San Patrizio Eguna, Irlandako patroia, ospatzeko irlandar kanta batzuk prestatzera animatu gintuen. Solasean hasi eta batek eta bertzeak ezagutzen genituenak aipatuz,



Kepa Lazarak banjoa jotzea eta kantatzea maite du. JOAKIN IRIARTE

zazpi elkartu ginen. Lehenbiziko pausoa elkar ezagutzea izan zen, bistaz ezagutzen ginen arren... Gero kanta batzuk aukeratu genituen, nola egin genezakeen pentsatu eta bertsioak sortzen hasi ginen. Hasi kanta ezagunak aukeratu genituen eta horrek lagundu zigun.

Nork osatzen duzue taldea?

Etxe bakoitzeko saltseroenak gaude, adin guztietako zazpi musikari gara. Bateria Mikel Fagoagak (Elizondo) jotzen du; baxua Iñigo Beltzunegi elizondoarrak; akordeoia Iban Durrutena erratuarrak; Xabier Durruti arizkundarrak armonika, txirula eta gitarra; ama gartzaindarra duen baina Iru-

nen bizi den Endika Beltranek biolina; eta Izargi Zumarraga arraioztarrak gitarra akustikoa, zeharkako txirula eta abestu egiten du. Eta nik banjoa jotzen dut eta abestu egiten dut.

Non ikasi duzu banjoa jotzen?

Nire banjoak tranpa du. Irlandan jotzen duten banjoak lau soka ditu eta bertze afinazio bat du. Estatu Batuetan bertze banjo mota bat jotzen dute, bertze afinazio bat duena baina bortz soka dituena. Dena den, nik gitarra pixka bat nekenez, gitarra antzeko banjo bat dut, gitarra bezala jotzen dena baina banjo soinu duena.

Nola izaten da bertsioak egiteko prozesua?

Baten batek proposatzen du, bideoa edo abestia partekatuz eta polita eta erraza iruditzen bazaigu horrekin hasten gara, bakoitza bere kabuz. Nik lehenbizi Interneten akordeak badiren begiratzen dut eta bertzelatik ateratzen ditut. Zein tonutan kantatzen dugun begiratzen dut, ea tonua ongi dagoen, belarriz egiten dut... Gero, jo bitartean, hobekuntzak proposatzen ditugu, musika tresna bakoitza non sartu...

Denbora aunitz pasatu zen taldea sortzetik plazaratu arte?

2018ko azaroan hasi ginen elkartzeko, udaletxean taldeak entseatzeko duten gela batean edo gaztetxean. Lehenbiziko emanaldia 2019ko martxoaren 17an egin genuen, Elizondoko gaztetxean eta ordurako hamar kanta inguru prestatu genituen.

Nolako harrera izan zuen?

Jendeari aunitz gustatu zitzaion, gaztetxea lepo bete zen, giroa ederra izan zen. Ondotik, bertze toki batzuetan jotzeko hasi ziren... Ez genuen halakorik espero. Aditzeko erraza den musika da, besta girokoa, alai... horrelakorik ez dago inguruan eta horregatik izan daitekeela uste dut. Ekitaldi batzuetarako bertze estilo batzuk baino aproposagoa da. Errate baterako, Arizkunen egon ginen Kirikoketa Besta eta horrelako musika, ez tradizionala ezta rocka ere, egokia dela uste dut, adin guztietako jendearentzat egokia den musika delako.

Zertan eragin du koronabirusak zuen martxan?

Ezin dugu entsegurik egin, ezin gara toki itxi batean elkartu ez garelako profesionalak. Pentsa, plazan ere egin izan dugu entsegurik, bertze modurik ez genuelako... Gure kasuan hau zaletasuna da, ez da etorkizuneko proiektu bat eta gure asmo bakarra ongi pasatzea da eta ongi pasaraztea da. Hala ere, bada hortik bizi nahi duen jendea, ilusio hori duena... Horren harira, eskertzekoa da Baztango Udalak egin duen lana, neurriak betez baina hemen kultura ez da eten.



Amaiurko eskolako ikasleek Erabiliaz egitasmoan parte hartu dute.

Euskara sustatzeko Erabiliaz ariketa abian ikastetxeetan

Baztango ikastetxeetan abiatu duen ariketa Euskal Herri osora zabaltzeko asmoa du Euskalgintzaren Kontseiluak

TTIPI-TTAPA

Euskararen etorkizuna bultzatzeko haur, gazte eta nerabeen belaunaldia ezinbertzekoa dela iritzita, Euskalgintzaren Kontseiluak gazteak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzea helburu duen Erabiliaz egitasmoa abiatu du.

Baztango ikastetxeetan eman diote hasiera proiektuari eta momentuz Baztan Ikastola, Elizondoko, Amaiurko, Irurritako, Erratzuko, Arizkungo, Oronoz-Mugairiko, Azpilkue-tako, Arraiozko, Gartzaingo eta Lekarozko eskola eta Lekaroz BHI institutua dira parte hartzen ari direnak. Aitzinera begira, ordea, Euskal Herriko hainbat zonaldeetako ikastetxeetara zabalduko dute egitasmoa. Apirilatik ekainera, erraterako, Donostialdean landuko dute eta bertze zonaldeekin harremanetan jarriko dira ekimena irailetik abendura martxan paratzea proposatzeko.

Euskara eta euskal kultura ardatz dituzten sormen lanak

Ariketa honek *Euskaraz bizi nahi dut* lelopean euskara eta

euskal kultura ardatz duen lanak sortzera bideratzen ditu gazteak, ondotik webgune batean edota bertzelako euskarri batean ikusi ahal izanen direnak. Haur Hezkuntzan marrazkiak eta abestien koreografiakin egindako bideoak; Lehen Hezkuntzako lehenbiziko eta bigarren zikloan marrazkiak eta euskarari buruzko abestietan oinarritutako bideoak; hirugarren zikloan marrazkiak eta ipuin laburrak; eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan bertsoak, ipuin laburrak, logoak, Egunean Behin jokoa, Youtube saila, dokumentala, bideo laburra... landuko dituzte. Haur Hezkuntzako bideo-koreografiak bidaltzeko martxoaren 31ra arteko epea dute eta DBHkoek lanak apirilaren 16rako bidali beharko dituzte.

Ariketan parte hartzea saritu egingen dute, lanketaren bukaeran parte-hartzaile bakoitzarentzat opari txiki bat edo gelarako opari sorta bat emanaz. Horrez gain, Baztan Abentura Parkerako sarrerak ere zozketatuko dituzte.

Jorge Riechmannen liburu aurkezpena eta hitzaldia larunbatean

TTIPI-TTAPA

Joan den azaroan Jorge Riechmannek urteroko Landa Begiradak jardunaldien barnean eman behar zuen solasaldia koronabirusagatik bertan behera gelditu zen. Mintzaldi hori bera martxoaren 27an, larunbat honetan, izanen da, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. 18:30ean hasiko da.

Klima larrialdia eta krisi ekosoziala solasgai

Filosofoa, matematikaria, saiogilea eta itzultzailea, eko-

logista eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Moralaren Filosofiako irakaslea den Riechmannek bere azken liburua, *Otro fin del mundo es posible*, aurkeztuko du. Hortik tiraka, klima larrialdi eta krisi ekosozial aldirako balioak izanen ditu solasgai.

Aitzinetik izena eman beharko da

Covid-19agatik edukiera mugatua izanen da eta sarrerako erreserba aitzinetik egin beharko da kultur etxean bertan.



HAMAIKA TELEBISTA

Historia zati bat pantailan

Mattinen eskutik Irurritako Arkupe gozotegiko *Urrakin egina* txokolataren sekretuak; Albaroren azalpenetatik Arizkun Rock jaialdia; Cesareoren zizelketa lanak; Amaiurko gaztelua eta Marianek egiten dituen bisitak; (H)ilbeltza astea; eta Baztandarren Biltzarra zer den bildu du Hamaika Telebistak.

ZUGARRAMURDI



Martxoaren 8an kontzentrazioa egin zuten. MARIFA ETA KORO



Martxoaren 6an kantaldia eskaini zuten Zozia ahizpek. MARIFA ETA KORO

Emakumeen Eguna bi egunez ospatu dute aurten

Hilaren 6an kontzertua eskaini zuten Madam Birrots taldeak eta Zozia ahizpek eta 8an kontzentrazioa egin zuten

MARIFA ETA KORO

Emakumeen Eguna bi egunez ospatu genuen. Bata igandean (zonaldeko herriein elkarturik): kalejira bat egin ondotik, plazan manifestu bat irakurri zen, eta ondotik Etxenikeko

larrainetik kantu batzuk eskaini zituzten. Baztango Madam Birrots taldeak eta herriko Zozia ahizpek.

Biharamunean, martxoak 8, kontzentrazio bat egin zuten plazan.



Jubilotean egindako bihotz morea. MARIFA ETA KORO

Harremanak taldeko jubiloteka berriz ere ilusioz ari da lanean

MARIFA ETA KORO

Otsailean berriz martxan eman ondotik, ilusio haundiarekin dabil Harremanak taldeko jubilotekako jendea.

Astelehenero eta asteazkenero zortzi bat lagun biltzen dira, 16:00etatik 19:00etara, eta martxoaren 8a astelehena izanik, beraiek ere Emakumearen Eguneko seinalea egin zuten, eskulanean bihotz more erraldoi bat eginez.

Herriko hiru jatetxe zabalik

Martxoaren lehenbiziko egunetan edeki zituzten herriko hiru jatetxeak. Lehenbizikoa Marixan izan zen, eta ondoko astean Graxiana eta Azketa ere prest zeuden.

Hala ere, bertze biak oraino etsirik segitzen dute. Herriko Etxea obrak egiteko esperoan dagoelako, eta Altzatenea, berriz, segur aski behin betiko hetsi delako.

Xaretako hiztegia

- **Danda:** ezkilaren doinua. («Goazen mezat, danda bakarra jo du eta»)
- **Ela!** Bertze baten etxean sartu aitzinetik, atetik abisatzeko egiten den oihua.
- **Etxilarra:** kurpila.
- **Erlastua:** Zinturreko arazoak izanik, ahotsa aldatuta ateratzen denean («zinturreko mina dut, eta erlastuta nago»).

MARTIKO

Dasta ezazu!

DENDA ORDUTEGIA Astelehenetik-ortziralerara 08:00-17:00
Martiko. Zalain Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa
Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Magia tailerra herriko eta inguruko haurrentzat

Astean hirutan ematen dute Javi eta Anka Trikuharriko arduradunek, adinaren arabera banatuta

ARANTXA ETA IRAIA

Urte gogorra bada ere, herriko haurretan pentsatuz magia tailerra eskaintzen hasiak dira Javi eta Anka Trikuharriko arduradunak. Honela, astean hirutan magia tailer hau eskainiko dute apuntatzen den haur orori. Momentuan 14 haur inguru daude, bi taldetan banaturik. Batetik, zortzi urtetik goitikoak, astearte eta ortziraletan biltzen direnak, eta bertzetik, zazpi urte bitartekoak, ortzegunetan aritzen direnak. Tailer honetan izen emateko



Javi eta Anka, emanaldi batean.

Trikuharrirat agertu edo Trikuharriren Facebook orrialdean sartu bertzerik ez da egin behar.

Karretero ostatua berriz edekita mugimendu gehixeago sumatzen da

ARANTXA ETA IRAIA

Urtero bezala, neguan hetsia egon ondotik, aurtengo sasoiari hasi du Karretero herriko ostatuak. Hainbat herritarrek hainbertze esperatu duten eguna ailegatu zen eta Karretero ostatuak martxoaren 3an atek edeki zituen.

Herriko ostatu honek, oraingoz, asteburuetan eta besta egunetan edekiko du, eta ostatu eta jatetxe zerbitzuak eskainiko ditu.

Beraz, herrian mugimendu pixka bat gehixeago sumatzen ari gara martxoaren 13tik aitzina.



Genaro Fagoagaren harrietako bat, txukun-txukun garbitua. ARANTXA ETA IRAIA

Genaro Fagoagaren harriak garbitu dituzte Poli eta Luxio Jaurenak

ARANTXA ETA IRAIA

Herrian ezaguna da Genaro Fagoaga, harria lantzen aski artexa baita. Honela hainbat xokotan berak landutako harriak ikus ditzakegu auzoen eta bertze tokien markatzeko. Denbora pasa ahala, harri hauek ere zikin xamar agertu

izan dira eta, azkenik, Poli eta Luxio Jaurenak harri hauek garbitzeari ekin zieten. Honela, harri hauek txukun txukun utzi zituzten egindako lanaren ondotik. Herri guztiaren partetik mila esker hirueri herria ongi apaindu eta garbi mantentzeagatik.

VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Irun

LUZAIDE
31660 Luzaide

DANTXARINEA
31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren Pizan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Christophe Mariluz, Esku Pilota elkarteke lehendakari berria. UTZITAKOA

Esku Pilota elkarteak lehendakari berria

Christophe Mariluzek Noël Landabure eta Jean Baptiste de Ezcurra laguntzaile izanen ditu

GANEX

Aitzin horretan, Iparraldeko pilotariak eta pilotazaleak biltzen dituen Esku Pilota elkarteak egin du urteko bilkura. Aunitz urtez Esku Pilota goiti eta aitzinera eraman duen Jean Baptiste de Ezcurrak lehendakaritza utzi du. Urruñako Darrichonekin batera lan handia egin du de Ezcurrak.

Bi lagun elkarteke buru

Orain bi lagun izanen dira elkarteke buru, hain zuzen ere: Christophe Mariluz 46 urteko herritarra eta Noël Landabure.

Aitarene bidea segituz

Mariluz, Jeanine eta Danielen semea da. Daniel Mariluz 20 urte baino gehiagoz izan zen Sarako Izarra pilota elkartearen lehendakari, eta bistan dena, aitak etsenplu ona eman dio bere semeari.

De Ezcurra ohorezko lehendakari

Mariluz ez da bakarrik ariko, Jean Baptiste de Ezcurra oraindik hor izanen baitu ohorezko lehendakari gisa laguntzeko, baita Noël Landabure bera ere. Suerte on Esku Pilota elkarteari eta Christopheri.

Izarra Errugbi Taldeak selauru hustea antolatu du maiatzaren 13an

Maiatzaren 13an, ortzegunean, Izarra Errugbi Taldeak antolatuta selauru hustea iraganen da herriko plazan. Azokan: zaharkinak, bildumak, liburuak, altzairuak eta bertze gauza anitz ikusi eta erosten ahalko dira eta sarrera uririk izanen da.

Arduradunek adierazi dutenez, momentuan ezarritako osasun neurriak beteko dira eta sartzeko maskara erabiltzea baitezpadakoa izanen da.

Postua paratu nahi dutenek aitzinetik 06 88 16 71 59 telefonoan erreserba egin beharko dute.

Hamabi ikasle gehiago izanen ditu Olhain Ikastolak hurrengo ikasturtean

GANEX

Martxoaren hasieran ate irekien eguna egin zuten Olhain Ikastolan. Bertan, eraikina ezagutzeaz gain, ikastolaren funtzionamenduaren berri eman zitzaizen burasoei. Ate irekien ondotik, hamabi ikasle berrik izen-eman zuten.

Horrela, 120 ikasle ditu Olhain Ikastolak gaur egun.

Bertzalde, Ikastolako ikasleak zein irakasleak egun batez aktore lanetan ibili dira. Izan ere, Herri Urrats iragartzeko Kestu produkzioak egiten ari den bideokliplean parte hartu dute.



OIHANA DAGERRÉ

150 lagun feminismoa aldarrikatzen

Emakumeen Egunaren harira, Baztan-Bidasoaldeko ekimen nagusia herrian egin zuten. *Inkiszioaren, inposizioaren gaineratik, herri feminista gira* lelopean manifestazioa egin zuten herriko plazatik abiatuta. Bukaeran Ekhiñe Zapiain, Onintza Agirre eta Haira Aizpurua bertsotan aritu ziren.



Martxoaren 3an urtegiko lanen berri eman zuten Aintziran. UTZITAKOA

Aintzirako obrak maiatzaren 10erako finitu nahi dituzte

Martxoaren 3ko bilkuran Philippe Poulet axuanta gogoan izan du Dominique Idiart auzapezak

JEAN LOUIS BESSONART

Martxoaren 3an, bilkura bat antolatua zen Aintziran puntu bat egiteko hango ur-isuriko lanen aitzinatzeaz. Dominique Idiartek emozio anitzekin gogoratu nahi izan zuen Philippe Poulet axuanta, bezperan zendua, berak baitzituen hurbiletik segitzen urtegiko obrak eta aski errepikatua zuen zernahi gertaturik ere proiektua bururaino eraman behar zuela. Emilio Tena ISF Ingénierieko zuzendariak aurkeztu zituen lanak, baita gelditzen direnak. Dakizuen bezala, beranta handia hartua izan da bereziki

abendu eta urtarrileko euri-teengatik. Halere, ontsalaz, oraingo erritmoan iraganez, lanen bukaera maiatzaren 10erako iragarria dute. Ikusten diren obrek neurritz kanpo itxura dute, hain dira handiak, esplikatu digute beharrezkoak direla uholde erraldoiei erantzuteko. Azken lan zatia, urtegiaren iskineko gunean kokatua da, leku horretan eraikiko baitute zubi berri bat, baita turistaren errezibitzeko etxola ere. Momentuan betoia eta burdineria dira nagusi, hauek ere, nahi edo ez, beharrezkoak ingurumenaren zaintzeko.

Apoarmatu istilzaleari buruzko azterketa abiatu du hirigune elkargoak

TTIPI-TTAPA

Natura 2000 ekimenaren barne, Euskal Hirigune Elkargoak Europako apoarmatu istilzaleari buruzko azterketa abiatu du eta Urdazubi ur-bazterretan halako apoarmatu edo dortoka ttipia ikusiz gero, lekukotasuna emateko galde-

gin du. Aukera izanez gero, argazkiarekin informazioa, 06 74 95 08 36 telefonora edo mifen@wanadoo.fr helbidera bidaltzeko eskatu du.

Toki hezeetan eta ibai lasaetan bizi da apoarmatu hau baina espeziea gaur egun arriskuan dago.

Auzolana egin dute Pantxoari laguntzeko

Otsailaren 25ean sute batek suntsitu zuen Eltzauzpeko belartegia eta gertakari horretan ondoko pentzean barreiatuak izan ziren tola, zura erdi erreak, tresneria baita belar eta iratze ere, ezin erranezko nahasketa batean. Auzoko baten ekimenez, hurbileko kide batzuek beren adiskidantza erakutsi nahi izan diote Pantxoa jabeari. Egun batean denak plantan ongi berezirik ezarriak izan dira eta soroa garbiritutzi dute bere artaldeak alhatu dezan. Garai batean, auzolanak normalki erabiltzen ziren lanendako, adibidez, orgabideen antolatzeke, gaur egun, herriko etxeen gain direnak. Arteka on da azpimarratzea gizarte nahasi honetan, jendeak badakiela elkartasuna eta laguntza ematen beharretan direnei.

Laguntzaile baten bila ari dira Xaldubi Ikastolan

Ikastolak ASEM laguntzaile bat xerkatzen du. Orokorki erakasleak laguntzea, haurren autonomia bultzatzea, gela eta materialen prestakuntza egitea, kantuan haurrak laguntzea eta eguerdi eta arratseko haurtzaindegia animatzea izanen dira eginbeharrak. Gaitasuntan galdegin dute euskara menperatzea (EGA estimatua), lehen haurtzaroko CAP edo hurrekin esperientzia izatea, lehen mailako sokorriak (PSC1) estimatuak, animazio mailan esperientzia (BAFA), elkarlanerako gogoia eta gaitasuna. Apirilaren 26an hasteko izanen da, kontratu mugatua, 28 oren astean, 36 aste urtean, asteazken eta bakantzetan lanik ez. Interesatuek igorri CVA eta motibapen gutuna martxoaren 28a aitzin zaldubi.bulegoa@gmail.com helbiderat.

87 egunen ondotik Atlantikoa zeharkatu du Jean Marc Dupont arraunlariak

JEAN LOUIS BESSONART

Atsegin izugarriarekin ailegatu zen Martinika uhartera Jean Marc Dupont gure herritar arraunlaria, animaleko erronka garaitu ondoo: Atlantikoa zeharkatzea.

Abenduaren 13an abiatu zen eta martxoaren 10ean hunkitu zuen lurra, 87 egun pasaturik bere itsasontzia ahal bezala gobernatuz haize, korronte eta uhinen erdian. Mila aldiz pentsatu du zer ari ote zen holako erokerian engaia-turik, baina halere, etsipenak pozarekin bururatu dira.



Dupont ondoko egunetan piraguan.

Laster etxera bueltan

Christelle bizilaguna eta bere alaba helmugara joanak ziren Duponten besarkatzera. Jainkoak daki emazte hauek zer sufritu duketen abentura honen irau duen garaian. He-

mendik laster, ikusi behar genuke abenturazalea gure herrian, haatik ongi mehatu-rik, 20 kilo gutiagorekin. Behar den ospakizun bat merezi luke, dudarik gabe. Aupa Jean Marc.



Baztan eta Malerreka pilotariak, antolatzaile eta sariemaileekin. JM ONDIKOL

Baztanek irabazi dio Malerrekari bigarren laxoa desafioan

Arraiozko plazan martxoaren 13an jokaturako partidaren Baztango taldea 9-5 gailendu zitzaion Malerrekakoari

TTIPI-TTAPA | ARRAIOZ

Baztan eta Malerrekako arteko laxoa desafioa jokatu zuten martxoaren 13an Arraiozen eta joan den urteko errebantxa hartu zuten baztandarrek 9-5 irabazita. Baztango taldean, Mikel Mindegia arraioztarra aritu zen Gorka Urtasun iruritarren ordez eta berarekin

batera Irurritako Beñat Mariezkurrena, Oinatz Jauntsaras eta Iñaki Etxandi aritu ziren. Malerrekaren izenean, berriz, Doneztebeko Josu Juanena eta Jokin Apezetxea eta Oizko Ioritz Zelaia eta Laurendi Zelaia aritu ziren.

Emozioz betetako finala izan zen eta kintze ikusgarriak jo-

katu zituzten, ia bi ordutan. Lehen jokia baztandarrek egin bazuten ere (1-0), Malerrekakoak 1-2 aitzinetik jarri ziren. Ondotik, borts joko segidan egin zituzten baztandarrek (6-2) eta bazirudien desafioa erraz eramane zutela. Baina Malerrekako pilotariak hiru joko egin eta 6-5era hurbildu ziren. Alferrik, ordea, azken hirurak segidan egin baitzituzten baztandarrek (9-5).

Sariak banatzen, Joxelu Retegi Arraiozko alkatea eta Laxoa Elkarteko Josu Prim aritu ziren.

Laxoa txapelketa, aurten bai

Iaz ez zen laxoa txapelketa jokaterik izan eta horren ordez, desafioa eta kopa jokatu zituzten. Aurten, berriz ere ohiko txapelketa antolatuko du Laxoa Elkartek eta zortzi talde ariko dira: Arraioz eta Oizko bana, Irurritako bi eta Doneztebeko lau. Laxoa Elkartek azpimarratu du «bi talde berri izanen direla, joan den urtean promozioko txapelketan aritu ziren Irurita eta Doneztebeko talde gazteak, lehen aldiz ariko direnak». Finala abuztuaren 7an jokatuko da Arraiozen. Udazkenean, kopa antolatuko dute.

XXX. Josexo Ezkurra Memorialean hasi dira ehun pilotari

Josexo Ezkurra zenaren omezez Erreka elkarteak 30. aldiz antolatutako pilota txapelketa abiatu zen martxoaren 21ean. Denera ehun pilotarik eman dute izena, hamaseina ume, kimu, haur, gaztetxo, gazte eta helduen kategorietan eta lau nesketan. Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan eta Legasa eta Lesakako pilotalekuetan jokatu zituzten igandean lehen partidak. Finalerdiak apirilaren 18an jokatzeak dituzte eta finalen data erabat zehaztu gabea zuten hau idazterakoan.

Herri Kirol Jokoen azken jardunaldia igandean Antsoainen

Nafarroako Herri Kirol Jokoen hondarreko jardunaldia jokatuko dute igande honetan Antsoainen. Lehenbiziko hiru jardunaldietan ikusitakoaren arabera, kimu, haur nahiz kadete mailako proba konbinatuetan txapelaren lehian izanen dira Igantziko taldeak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Basaburuko duatloian Erreka bikain

Martxoaren 6an Basaburuan egin zen duatloian Ibon Erdozain beratarra 13. izan zen (1.16.22), eta Alberto Barberena 18. (1.16.59). Santi San Miguel doneztebarra lehenbizikoa izan zen beteranoe-tan (1.19.21). Jon Maritxalar 37. (1.20.30), Aritz Perez, Miguel Ezkurra eta Eneko Herrera 46., 48. eta 50. postuetan sartu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Iruritan erremente eskola izanen dute

Urte honetarako asmoen berri eman du Euskal Jai Berri Erremente Fundazioak. Dagoeneko lanean ari diren Doneztebe, Agoitz eta Lekunberriko erremente eskolekin batera, agudo Iruritan, Altsasun eta Atarrabian ere hasi nahi dute formakuntza ematen.



Euskal Herriko txapelketako lehen asteburuan jokoan zeuden hiru txapelak lortu zituen Beti Gaztek. UTZITAKOIA

Euskal Herrikoan ere indartsu Beti Gazte sokatira taldea

Gizonezkoen 680 eta 640 kilokoa eta emakumeen 540 eta 500 kiloko txapelak irabaziak ditu dagoeneko

AITOR AROTZENA | LESAKA

Euskal Herriko sokatira txapelketa martxoko lehen asteburuan abiatu zen Getxon (Bizkaia) eta Nafarroakoan egindako bidetik, jokoan zeuden hiru txapelak Lesakara ekarri zituen Beti Gaztek. Martxoaren 6an, emakumezkoak eta gizonezkoak aritu ziren pisu astunenetan, 540 eta 680 kilotan, hurrenez hurren. Bietan txapeldun izan zen Beti Gazte. Hilaren 7an, 640 kilokoa aritu ziren gizonezkoak eta hauek ere, tiraldi guztiak irabazi eta ekarri zuten txapela.

Lehen asteburu bikaina

Emakumezkoen 540 kilokoa tiraldi guztiak irabazi zituen Beti Gaztek, eta Ibarra eta Badaiotzek beraien artekoan berdindu egin zuten. Beraz, 6 punturekin txapeldun Beti Gazte eta puntu banarekin gelditu ziren Ibarra eta Badaiotz. Zortzikote txapeldunean Aitziber Goienetxe, Amaia Leiza, Karmele Pikabea, Iran-

tzu Goienetxe, Ane Gurrutxaga, Udane Arbelaitz, Arritxu Muxika eta Maria Iantzik tiratu zuten, Joxe Angel Mitxelena entrenatzaile zutela.

Gizonezkoen 680 kilokoa, azkenean Beti Gazte eta Ibarra aritu ziren bakarrik eta lesakarrak gailendu zitzaizkien gipuzkoarrei. Joxe Angel Mitxelena, Ander Mitxelena, Mikel Apeztegia, Oskar Telletxea, Beñardo Iantzi, Beñat Ordoki, Eneko Saldias eta Gerardo Telletxea aritu ziren pisu astuneneko zortzikotean, Paskual Taberna erakusle zutela.

Gizonezkoen 640 kilokoa, Beti Gazte izan zen txapeldun, Ibarra bigarren eta Txantrea hirugarren. Joxe Angel Mitxelena, Ander Mitxelena, Mikel Apeztegia, Oskar Telletxea, Beñardo Iantzi, Iñigo Altzugarai, Eneko Saldias eta Gerardo Telletxea aritu ziren zortzikote txapeldunean, Paskual Taberna erakusle zutela. Beraz, aldaketa bakarra egin zuten bezperatik eta Iñigo

Altzugarai sartu zen Beñat Ordokiren ordez.

Emakumeak pisu arinean ere

Martxoaren 13an emakumeen 500 kiloko txapela lortu zuen Beti Gaztek. Ibarra izan zen bigarren eta Txantrea hirugarren. Beraz, podiotik kanpo, laugarren gelditu zen iaz kategoria honetan txapeldun izan zen eta Munduko txapelketan urrezko bi domina irabazi zituen Gasteizko Badaiotz. Berriozar bosgarren izan zen. Pisu arineko zortzikotean Aitziber Goienetxe, Ane Gurrutxaga, Irantzu Goienetxe, Karmele Pikabea, Maddalen Lopez, Udane Arbelaitz (Oiarzun), Udane Loidi (Oiarzun) eta Maria Iantzi igantziarra aritu ziren, Joxe Angel Mitxelena entrenatzaile zutela.

Beraz, hau idazterakoan, lautik lau irabaziak zituen Lesakako taldeak Euskal Herrikoan.

Asteburu honetan azkenak

Martxoaren 20an gizonezkoak 600 kilokoa lehiatzekoak ziren eta Euskal Herriko txapelketa bukatzeko, martxoko azken asteburuan, txapelketa mistoa jokatu du larunbatean (580 kilo) eta gizonezkoen 560 kilokoa igandean. Mistoa Beti Gazte, Txantrea, Berriozar, Antsoain eta Ibarra lehiatuko dira eta gizonezkoen pisu arinenean, Beti Gazte, Txantrea eta Antsoain.

Nerea Sorondo nagusi Urrezko Aizkora txapelketan

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 14an jokatu zen Azpeitian XXI. Binakako Urrezko Aizkolaritza Txapelketa nagusiaren finala.

Emakumezkoen aizkolaritza txapelketan, Nerea Sorondo beratarren eta Maika Ariztegi iturendarraren artean izan zuten lehiarik handiena eta azkenean beratarra gailendu zen 41 segundorengatik. Lana bukatzeko 7 minutu eta 17 segundo behar izan zituen Sorondok eta 7 minutu eta 58 segundo Ariztegi. Dexente beranduago bukatu zuten Claudia Muñoz (12.51) eta Uxue Ansoarregi (15.08) gazteek.

Aizkolaritza gazteen binakako txapelketan Xuban Kañameres V.a eta Ibon Garaiburu izan ziren txapeldun (9.34), Markel Zapiain eta Axel Larrañaga bigarren (10.24) eta Berako Oier Larretxea eta Endika Goia hirugarren (12.35).

Final handian ez zen eskualdeko ordezkariarik. Ibai Soroa eta Txomin Amundarain suertatu ziren txapeldun (18.40), Hodei Ezpeleta eta Goizeder Belza bigarren (20.05) eta Suhari Rodriguez eta Jokin Urretbizkaia 'Basozabal' hirugarren (20.51).

Zortzi Arroako Hiru Harri Urrezko Harrijasotze txapelketan Mikel Lopetegi Urna nagusitu zen 102 jasoaldirekin, Beñat Telleria bigarren 95 jasoaldirekin eta Inhar Urruzuno hirugarren 89 jasoaldirekin.



Nerea Sorondo garaile izan zen.

MARTXOAK 25 - APIRILAK 8

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKOA

LESAKA **En Tol Sarmiento** taldearen kontzertua

Bi emanaldi izanen dituzte, 17:00etan eta 19:30ean.
Harriondoan, martxoaren 27an.

IKUSKIZUNAK

GOIZUETA

'40 urte eta aldapan behera'

Ganbaran, martxoaren 27an, 18:30ean.

BERA

'Iluntzen'

Mairu antzerki taldearen eskutik.
Kultur etxean, martxoaren 28an, 18:30ean.

DONEZTEBE

'Bideak' dokumentala

Zineman, apirilaren 3an.

LESAKA

'Ilargiaren atzean' antzerkia

Harriondoan, apirilaren 10ean.

ELIZONDO

Korrikaren aldeko ekimena

AEK-k antolatuta.
Plazan, martxoaren 28an, 12:00etan.

BERTSOAK

LESAKA

Berto bazkaria

Sagardotegian, apirilaren 17an, 14:00etan.

KONTZERTUAK

LESAKA

En Tol Sarmiento

Harriondoan, martxoaren 27an, 17:00etan eta 19:30ean.

ELIZONDO

Iruñeko orfeoia

Parrokian, martxoaren 27an, 19:00etan (ateak 18:40an irekiko dituzte).

Piano kontzertua

Arizkunenean, apirilaren 11n, 19:00etan.

LEITZA

Unai Pelayoren kontzertua

Atekabeltzen, martxoaren 27an.

ARIZKUN

Xabier Xubelet eta Xamanat

Txuputo karrikan, apirilaren 3an, 12:00etan.

DONEZTEBE

Kontzertu sakroa

Elizan, martxoaren 26an, 20:00etan.

Pleura taldearen

'Bakarrilketa' diskoaren aurkezpena

Edukiera mugatua: 70 lagun.
Zineman, martxoaren 27an, 19:30ean.

SOLASALDIAK

ELIZONDO

'Damian Arrutiren asmazioak'

Gorka Arreseren solasaldia.
Arizkunenean, martxoaren 26an, 18:30ean.

'Otro fin del mundo es posible'

Jorge Richman hizlari.
Arizkunenean, martxoaren 27an, 18:30ean.

Taupada egitasmoa

Arizkunenea kultur etxean, apirilaren 9an, 16:00etatik 19:00etara.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

'Hemen baditun 14'

Arizkunenea kultur etxean, martxoaren 26ra arte, 17:30etik 21:00etara.

BERA

'Basapiztia' erakusketa

Iñaki Atxaren erakusketa.
Labiaga Ikastolan, martxoaren 27tik aitzinera.

DANTZAK

ELIZONDO

Muxikoak, jotak, larrain dantza, gaita...

Harriondoan, martxoaren 27an, 17:00etan eta 19:30ean.

KIROLA

ELIZONDO

Izterpeko matxinada

Plazatik abiatuta, martxoaren 26an, 19:00etan.

IKASTAROAK

EZKURRA

Oinarrizko gaitasun digitalak

Nafar Lansarek antolatuta.
Udaletxean, martxoaren 25era arte.

ELIZONDO

Mendekotasuna dutenei arreta emateko ikastaroak

Lanbide Eskolan, apirilaren 14tik ekainaren 2ra eta apirilaren 16tik maiatzaren 13ra.

LEITZA

Marketing ikastaroa

Nafar Lansarek antolatuta.
Udaletxean, apirilaren 12an hasita, 15:00etatik 17:00etara.

Nire aukera

«Baztan ez dago geldirik, bizitza eta etorkizuna ziurtatu nahi da»

LOREA PLAZA MARTINEZ LEKAROZKO GAZTEA



«Familia, lagunak, bikotekidea, jendea, ospakizunak, bilkurak...» hori eta aunitzez gehiago da herria Lorea Plazaren dako (Lekaroz, 1999). Aunitzendako bertze toki bat bertzerik ez dena bere «zati haundi-haundi bat» da, «nola-bait errateko bertan eraikitzen baitut bizitza».

Ingurua eta harremanak

Herrian bizi da eta herriarekiko loturari eutsi nahiko lioke Plazak. Hortaz, argi du herrian ez bada «Baztanen» bizi nahiko lukeela. Argia da bere nahia, eta argia zergatiak: «naturarekin harremantzeko aukerak bertze leku aunitzetan baino nabarmenagoak

dira, hizkuntzak eta ohiturek bertze balio bat dute, haur, gazte zein heldu izan harremanak anitzagoak eta hurbi-lagoak dira... Herri tiki batean hazi, hezi eta bizi diren gehienek bezala, nik ere sumatu ditut abantaila horiek».

Horri guztiari eusteko, etorkizuna behar da eta etorkizunari begira jartzea «zaila» den arren, Lekarozko gazteak «herrian edo inguruko herriren batean bizi nahi duen gazte andana» dagoela uste du. Lekarozki dagokionez, berriz, «desjabetu nahi diren lurretan *pelotazo* urbanistikoa gertatzearen» beldur da: «hori gertatuz gero ez dut horren garbi ikusten...».

Galdu eta irabazi

Orain artean herriko bizimoduan izan diren aldaketak erabakigarriak izan dira eguneroko martxan. Eta horien artean, ondorio zuzena izan duten bi ekarri ditu gogora lekaroztarrek. Ate bat ixteak aukera bat mugatzen du maiz eta horri lotuta, «orain dela urte pare bat herrian genuen ostua hesteak» eragindakoa oroitu nahi izan du, «ordutik herriko mugimendua dezentel aldatu da, neguan batez ere, ostua herrian biltzeko aitzakia baitzen aunitzendako». Edozein modutan, «eskola berriz martxan paratzearekin» aunitz irabazi dute: «haur eta gurasoen presentzia ugaritzea eragin du...».

Baztanen etorkizunaren alde lanean

Herria bizirik eusteko gogo nabarmena da Lekarozen eta bailara osoan Plazaren ustez, baina gogoz kontrako trabek ez dute mesederik egiten: «emantzipatzeko zailtasunak ditugu, eskuragarri egon daitezkeen etxebizitzak falta dira... Hutsik dauden etxebizitzak izan badiren arren jabeek ez dituzte saldu edo alokatu nahi». Saltzeko dauden artean ere, «saldu artean ez dituzte alokatzen eta etxebizitza aunitz apartamentu turistiko bilakatu dira». Hori «arazo koxkorra da herrian bizi nahi dugun gazteondako».

Bailaran bizi eta bailararen alde egiteko nahiaren lekuko dira «indarrean dauden mugimenduak». Eta, horien artean, bat baino gehiago nabarmenduko lituzke Plazak: «orain guti Elizondoko zahar etxeko

langile eta erabiltzaileen lan eta zaintza baldintza duinen alde egin zen kate erraldoia bertzerik ez da ikusi behar. Jendea herritarrengatik, herriarengatik mugitzeko prest dago. Hemen bizi nahi ez bada zergatik borrokatu?». Hori «adibide bat bertzerik ez» da, «zerrenda luzea» baita: «Hor dabilta tokiko ekonomia eta ingurumenaren alde Erdiz Bizirik plataforma, Aroztegiako UGPSaren aurka Aroztegia... eta gero zer? plataforma, uneko etxebizitzaren aferaren inguruan buru-belarri Gazte Asanblada eta Elkartasun Sareko etxebizitza lantaldea».

Talde eta borroka bakoitzak «Baztan ez dagoela geldirik» erakusten du, «bizitza eta etorkizuna ziurtatu nahi direla» alegia.

Hamabortz herri, hamabortz izate

Baztan ez da Elizondo bakarrik, hamabortz herrik, hamabortz taupadek osatzen dute. Eta, hori garbi uztea komeni da, «Elizondozentrismoa gero eta nabarmenagoa» delako: «Lekarozen kasuan ostaturik edo elkartzeko espaziorik ez edukitzeak Elizondora joateko joera handitu du... Kuadrillek han elkartzeko ohitura dute». Hala ere, udaberriarekin batera hori ez da horren nabarmena «eguna luzatu eta eguraldia hobetzearekin batera herriko mugimenduan sumatuko da».

Mugimendu horretan egotea edo ez egotea, «norberaren erabakia» dela uste du, «etorkizuna bermatzeko jendea behar dela garbi dagoen arren, batzuek euren burua herrietatik at ikusten duten bezala, bertze batzuek herrian bizitzen segitu nahi dute».

Azken aukera horren alde egiten dutenak dira Plazaren ustez «herriari izatea ematen» diotenak: «herriko jendeak egiten du herri bat berdingabe».

**«ESKOLAK HAUR
ETA GURASOEN
PRESENTZIA
UGARITU DU»**

**«HERRIKO JENDEAK
HERRIAREN IZATEA
BERDINGABEA
EGITEN DU»**

**«ELIZONDOZENTRIS-
MOA GERO ETA
NABARMENAGOA
DA»**

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

LESAKA. Bi bizitzako etxebizitza salgai, 7.000 metro koadroko eremuarekin. ☎948 38 70 93 / 651 62 10 15.



IGANTZI. Pisua salgai. 3 logela, bi komun eta terrazarekin. Garajea, trastelekua eta igogailua dauzka. ☎687 73 00 87.

BERA. Iparkarrika karrikan etxea salgai, bi solairukoa, bajera eta lur-sail tiki batekin. Eta Dorrean 27m²ko garajea salgai. ☎ 948 63 03 92 / 650 00 68 87.

ERRENTAN EMATEKO

DONEZTEBE. Erreka ondoan etxe bateko pisuak errentan emateko. Goikoak 85 m² ditu: 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza. Baratz zati bat erabiltzeko aukera. 550 euro. Behekoak 75 m² ditu, sukaldea eta hiru logela. Baratza erabiltzeko aukera. 450 euro. ☎687 63 27 37.

IRUÑEA. Buztintxuri auzoan 2 logelako pisu ederra eta argitsua errentan emateko (altzariek). Garajea eta trastelekua barne, eraikin berean. Sarrera-irteera paregabeak. Saihesbidetik hagitx hurbil, baita etengabeko autobus zerbitzuarekin ere. Apirilaren 1etik aitzinera libre. ☎620 70 09 64.

GARAJEAK/LOKALAK

EROSI

DONEZTEBEn edo **ELIZONDO**n salgai dagoen lokal txiki baten bila. Erosteke aukera edo errentan hartzeko dena. Berdin dio erabat zaharberritu behar bada. ☎644 21 98 44.

LURRAK/ORUBEAK

DENETARIK

LESAKAn edo **INGURUAN** ardiak sartzeko belai errentan hartu nahi dute. ☎687 07 96 44.

LANA

ESKARIK

BAZTAN. Kotxea duen emakumea etxeko lanetan edo adinekoak zaintzen lan egiteko prest. ☎666 37 53 72.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

30 urteko neska **gazte arduratsua**, sortzez nikaraguarra, lan bila. Adinekoak zaintzen ariko litzateke. Esperientzia duena eta segituan lanean hasteko prest. Lau urte hemen bizi dela. Irunen bizi da baina edozein tokitara mugitzeko prest. ☎674 44 82 79.

ESKAINTZAK

LESAKA. Jatetxe batean zerbitzaria behar dute asteburuetan eta udan lan egiteko. ☎600 43 09 88.

MALERREKA. Behi esnedunak dituzten granja batean asteburuetan lan egiteko pertsona bat behar dute. ☎626 38 78 65.

Ile-apaintzailea behar dute, berehala hasteko prest dagoena, arduratsua eta lan egiteko gogoia duena. Bidali curriculum: amuralesaka@gmail.com.

BERA. Jatetxe batean zerbitzaria behar dute asteburuetan lan egiteko. ☎948 63 03 92 / 650 00 68 87.

ETXALAR. Lizarieta Bentan sukaldaria behar dute apirillean hasteko. Zortzi hilabeteko kontratuarekin. ☎646 50 62 49 (Stephane).

Neska bat lan bila. Adinekoak orduka edo interna moduan zaintzen ariko litzateke, eta haurrak zaintzen ere bai. ☎632 75 93 48.

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,01
- 1.koa 3,89
- 2.koa 3,74

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,12
- 1.koa 3,98
- 2.koa 3,84

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,00/4,10
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 5,90/6,20
- 8-10 kilokoak: 5,20/5,70

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 73 €

Zerri gizona 1,355€

Zerramak 0,790€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua martxoaren 5etik 12ra bitarteko prezioak)

DENETARIK

SALEROSKETAK

ARANTZA. Baseri batean su egurra salgai, sutarako prestatua, erdia ekonomikarako eta bertze erdia lurreko surako. Egur ona eta merke. ☎948 63 40 87 / 627 14 67 59 (20:00etatik 22:00etara deitu).

Ohatze artikulatu elektrikoa salgai. Sei hilabetez bakarrik erabilia. 1,05 metroko neurria eta latexezko bere koltxoarekin. ☎679 51 96 52.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 451 426 (Joxean).

GALDU-AURKITUAK

DONEZTEBE. Duela bizpahiru aste elizako estratan (Elizagibela aldera) antiojo graduatuak galdu ditut. Tous markakoak, beso edo patilla metalikoa dute. ☎629 35 55 96.

DENETARIK

Eskualdeko borda edo elkarte batean, pertsona batek bazkide sartu nahi luke. ☎620 20 87 60.

MOTORRAK

TAILERRAK

INDAUTO TAILERRAK / ELITE



Citroen Berlingo 1.6 Hdi
75.000km eta alboko atearakin



Fiat Panda 4x4 TT
93.000km



Volkswagen Caddy 4 motion (4x4)
2.0 tdi - 122 CV - 96.000km

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T. 948 453 488 - M. 675 324 960
info@indauto.es

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT



RENAULT KANGOO FURGON 1.5 dci 90 CV - 50.200 km - 7.600 euro + BEZ



RENAULT CLIO IV 1.5 dci 75 CV 20.600 km - 8.950 euro

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

GANIX
Tailerra



948 63 06 69

Zalain Pol., 11 . BERA

EUROMASTER zegoen lekuan



744 484 361

ttiipi-ttapa

www.doneztebe.net



Club AVIA bazkideentzako zozketa eksklusiboa



Patinete elektriko honen ZOZKETA

Lortu zenbaki bat zozketarako, 25 €-ko erosketa edo erregai-hornitze bakoitzeko.

Promozio baliagarria 2021/03/15etik 2021/04/15era (biak barne). Ikusi promozio-oinarriak www.avia.es helbidean.



Aske sentitu!

Leitza errepidea, 49 / Doneztebe / Tel.: 948 45 16 79 / M: 638 10 30 21


HILBERRIAK

- **Intza Urbistondo**, Sarakoa, otsailaren 4an, 8 hilabete zituela.
- **Marie Jeanne Lamothe**, Sarakoa, otsailaren 24an, 85 urte.
- **Francisco Telletxea Arregi**, Doneztebekoa, martxoaren 4an, 80 urte zituela.
- **Jose Jabier Iguzkiagirre Elzaurdia**, Igantzikoa, martxoaren 4an, 52 urte zituela.
- **Ana Maria Galarregi Goñi**, Donamariakoa, martxoaren 6an, 70 urte zituela.
- **Josefina Hernandorena Lastiri**, Sunbillakoa, martxoaren 7an, 77 urte zituela.
- **Jose Luis Otxandorena Anzizar**, Sunbillakoa, martxoaren 11n, 71 urte zituela.
- **Kandida Mitxelena Jorajuria**, Sunbillakoa, martxoaren 11n, 101 urte zituela.
- **Mª Victoria Etxenike Iparragirre**, Lekarozkoa, martxoaren 11n, 92 urte zituela.
- **Gregorio Belaunzaran Arraiago**, Aresokoa, martxoaren 11n.
- **Juanita Mariezkurrena Gastesi**, Elizondokoa, martxoaren 13an, 90 urte zituela.
- **Pedro Etxegia Goñi**, Donamariakoa, martxoaren 13an, 79 urte zituela.
- **Gloria Bereau Etxebeste**, Arantzakoa, martxoaren 14an, 80 urte zituela.
- **Jose Mari Loiarde Loiarde**, Goizuetakoa, martxoaren 14an, 83 urte zituela.
- **Mª Luisa Guimon Fort**, Elizondokoa, 98 urte zituela.

URTEBETETZEAK



Aritz Portu Iraizozek martxoaren 21ean 4 urte bete ditu. Zorionak eta musu haundi bat Lesakako familiaren partetik.




Mattin eta **Manex Goñi Errandoneak** eta **Aiert Baleztena Goñik** urteak beteko dituzte martxoaren 29an, 30ean eta apirilaren 4an. Zorionak eta aunitz urtez familia guziaren partetik.



Sunbillako **Laia Elizalde Garciak** apirilaren 29an 3 urte beteko ditu. Zorionak gure etxeko printzesari!!! Ongi pasa zure eguna!



Sunbillako **Sara Garcia Sanzberrok** apirilaren 17an 10 urte beteko ditu. Zorionak!!! Egun ona pasa gure *señorita!* *Muxus!!*



Zorionak Narbarteko **Iraia Martin Argaini** martxoaren 24an 9 urte bete dituelako eta **amatxi Kontxiri** apirilaren 8an 71 urte beteko dituelako. Aunitz urtez eta musu haundi bat familia guziaren partetik, baina bereziki Juneren partetik.



Elgorriagako **Ekain Juanena Iruvetak** martxoaren 31n 6 urte beteko ditu. Zorionak eta egun polita pasa! Txoko-marrubizko mila muxu! Segi beti bezain zoragarria izaten!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAN!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; TTIPI-TTAPANEN **bulegora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita; Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA edo **Whatsapez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 € argazki ttikia eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA webgunean sartuta; kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.

SORTZEAK

- **Margaux Cano**, Sarakoa, otsailaren 24an.
- **Unai Bertiz Berasain**, Doneztebekoa, otsailaren 25an.
- **Sara Merticariu**, Goizuetakoa, otsailaren 1ean.
- **Jon Telletxea Erasun**, Iturengoa, otsailaren 13an.
- **Intza Sorli Lizardi**, Arantzakoa, martxoaren 8an.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo info@ttiipi.eus helbidera idatzi beharko du.

OROIGARRIA




**Maria Luisa
ETXEBERRIA
MADARIAGA**

Igantzin, 2021eko martxoaren 2an
ETXEKOAK

Andreseneko bordan hazi zen
Gure etxeko damari
Ustekabeen aldamenera
Inguratu zaio Xabi
Besarkada bat nora bidali
Sortu gintuen amari
Hainbeste muxu hainbeste laztan
Zenbat babes ta janari
Inoiz etzaio dena itzultzen
Dena eman dizunari.

OROIGARRIA

**Asier
ARANGUREN ERRAZKIN**

Bizitzaren bidean aurkitu ginen.
Gaztetasuna partekatuz,
une maitagarriak bizitu genituen.
Gero bide desberdinak
hartu bagenituen ere,
maitasuna eta adiskidetasunak
barruan jarraitzen zuen.
Ta orain ezingo gara berriz elkartu...
Baina beti egonen zara gutako bakoitzean.
Ez zaitugu ahaztuko, maitasunez.

ZURE KUADRILLA



ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldirian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).



OROIGARRIA

**Asier
ARANGUREN ERRAZKIN**

Lesakan, 2021eko otsailaren 27an

Beti irribarra zenuen lagun min
gauza denen gainetik aitzinerat ekin
bizitzari helduaz gogo guziekin
indar hau utzi duzu betiko gurekin
maite izan zaitugun lagunekin.

ZURE ARREBEN LAGUNAK: Maika, Odei, Bakartxo, Aintzane, Saioa, June, Leire eta Axun.




Aseguru guztiekin lan egiten dugu

Zuk erabaki

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan
T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAN San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEN Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidaso.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidaso.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak






Zuen ondoan, betidanik

- Nafarroako hileta zerbitzuetan aitzindariak eta eskualdean zerbitzua ematen lehenak gara.
- Konfiantzako taldea osatzen dugu, errespetuz eta profesionaltasunez lan egiten dugu.
- Liderrak gara Nafarroan, zuen esanetara gaude.
- Zerbitzu integrala. Norberaren nahietara egokitutako agurrak.
- Aseguru etxe guztiekin lan egiten dugu. Zuk aukeratu eta guk kudeatuko dugu.
- Etxez etxeko zerbitzuetan adituak.
- Hilerrietako lanetan espezializatuak (partikularrak eta instituzionalak)
- Prezio lehiakorrek.

948 56 43 55 / 948 19 70 70 LEITZA (Ind. Landa II, 7. nabea)

PLAZAN BAZAN



MARIPURTZIL

PELOZIRI



LABIRINTOA

Lagundu Peloziriri zomorro lotsagabe horri ihes egiten. Honokoak dira jarraitu beharreko pausoak: 1 eskuak garbitu, 2 maskara erabili, distantzia errespetatu, txertoa jarri. Gogoratu pausoen segida errespetatu egin behar dela eta laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.




Marrazkiak: Garbiñe Ubeda (Aiturri)

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eu/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak




ITZALA

Zein da zomorro itsusi honen itzal zuzena?

OINUTSIK

Ehunzango gaixo honek oinetakoak falta ditu. Marraztuko al zenizkioke katuska polit-politak, lokatzetan sartzeko?



Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

777

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

- Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Gaston Larzabal Arozena | IRUN
- Onddo Ta Punto - Kamiseta bat
Jose Migel Dorregarai Organbide | IRURITA
- Martiko - Lote bat
Jose Emilio Del Rio Etxeverria | LESAKA
- Karting Indoor Irun - Sarrera bat
Felix Espelosin Etxeberria | SUNBILLA
- Irrisarri Land - 2 sarrera
Jose Luis Bakedano Bergara | ARANTZA
- Arkupe gozotegia - Lote bat
Maite Inda Jimenez | ARIZKUN
- Ibaizabal - Liburu bat
Amaia Olano Zabaleta | LEITZA
- Ibaizabal - Liburu bat
Uxue Iruuerta Zinkunegi | ELGORRIAGA

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

ELIZONDO

www.giltxaurdi.eus



2 sarrera

KARTING INDOOR IRUN

www.kartingindoorirun.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



2 sarrera

**LI
BU
RU
AK**



- Elur bustia
- Trumoiaren Alaba


www.erein.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.ttarttalo.eus



www.irrisarriand.eu